

# JOANNES ETCHEBERRI ZIBURUKOA NOELAC ETA TESTU KRITIKA

## 0. Atarikoak

Jarraian aurkezten dugun lantxo hau luze eta zabalago doan beste baten laburpen edo atal gisa hartu behar da. Haren izenburua *Joannes Etcheberri Ziburukoa: Obraren berrirakurpen bibliografikoa eta testu kritika* dugu eta, bistan denez, gai berberaren aurrean gaude; han, Etcheberriren obra osoaren azterketa garatzen da, hemen, labur bada ere, bere obra batena: *Noelac* liburuarena hain zuzen.

Lanaren izenburuak berak adierazten duenez, bibliografia eta testukritika zereginak ditugu. Bibliografiari gagozkiola, abiapuntu joan den mendeko hondarretarantz agertu zen Julien Vinsonen *Essai d'une bibliographie de la langue basque* dugu, lan hau baita, inolako zalantzarik gabe, euskal literaturaren ikuspegi kronologikorik zehatzena eta zabalena aurkeztuko duena. Testu kritikari dagokionez,<sup>1</sup> argi dago edizio kritikoaren prozesuan bi alde aski desberdinak ditugula: *recensio*-a eta *constitutio textus*-a. Recensio hau, era berean, a) *fontes criticae*, b) *collatio codicum*, c) aldaeren *examinatio* eta *selectio*-a eta d) *constitutio stemmatis codicum*-a posible denetan. Lanak, metodologia honi jarraiki, recensioaren zeregin hauei azpiatal bana eskaintzen die.

Honela, lortu nahi ditugun helburuak jarraikoak dira:

1) *Fontes criticae*, *collatio codicum* eta *examinatio* eta *selectioez* baliatuz, *Noelac* liburu honen lekukotasun berri bat aurkitu dugula erakutsi, inon katalogatu gabeko lekukotasuna.

2) *Noelac* liburu honen lekukotasun guztien filiazioa eta *constitutio stemmatis codicumari* esker, Joannes Etcheberriren obrari buruz egin diren sailkapen kronologikoek (aipatu Vinsonena bereziki) huts larriak dituztela erakutsi, guzti hau lekukotasun guztien biluzketa eta konparaketak eragindako aldaeren ikerketa zehatz eta sistematiko ezak eragina.

## 1. Nor dugu Joannes Etcheberri?

Badakigu XVI. mendearen hondarretarantz jaio zela. Non? Ziburun. *Eliçara erabiltceco liburua*-n «dotor teologo ziburutararak» sinatzen du. Lafitte jaunaren artikulu bat aipatu behar dugu, bestalde, jaiotza data ezagutu nahi izatekotan: Oihenarten *L'arte poetique basque (Un inédit d'Arnaud d'Oyhénart)* hain zuzen ere (1967: 123-128).<sup>2</sup>

*Dictionnaire des Lettres Françaises (XVI<sup>e</sup> siècle, Arthème Fayard, 1951), Nouvelle*

---

<sup>1</sup> Testu kritikari buruzko kontu guzti hauek gure hizkuntzan azaltzen ditu Joseba Lakarrak bere "Testukritikaz: I. Stemmarantz" artikuluan (Lakarra: 1988b).

<sup>2</sup> Oraintsu, Patrizio Urkizuk itzuli du Oihenarten *L'arte* hau. Ikus 1994, "Oihenarten Atsotitzak eta Poetika berrirakurritz". Iker 8. Euskaltzaindia. Bilbo. 295-328. or.

*Biographie Générale* (D<sup>r</sup> Helfer, Fermin Didot, 1856), *Biographie Universelle* (Michaud, 1815), hiru liburuotan edan eta hiruetan datu berdintsuak aurkitzen ditu Lafittek: XVI. mendearen erdialderantz euskal idazle bat izan omen zela, Etcheverri (Juan edo Jean) deitua, Nafarroako Tafalan jaioa, apaiza, Teologian doktore.

Lafitteren ustez Etcheverri honek gure Etcheberri hau izan beharko luke.<sup>3</sup> Zer dakigu Joanes Etcheberriz?, galdetzen dio bere buruari.

1) Ziburun jaioa dela eta ez Tafallan.

2) Bere hiru anaien garai berean hartu zuela sendotza Bertrand Etxauzengandik. Hauek honela, zera dio Lafittek: lau anaiek sendotza elkarrekin hartzeko beharrezkoa zen parrokian denbora luzaz sendotzarik egon ez izana. Eta hau honela izan zen Mauri jaunaren ondoren Baionako apezpikutzara hutsik izan baitzen (1593.etik 1598.era). Etxauz apezpikutzara heldu eta jarraian hasi baldin bazen bost urte horietan egin gabekoak betetzen, suposa liteke Baiona eta inguruetan (Ziburu barne) heltzeaz batera izango zirela, besteak beste, sendotzak, 1598 edo 1599.ean. Are, sendotza 18 bat urterekin hartzen zuen garai hartako gazteriak. Gure kasuan, bada, Joanes Etxeberri 1580-1586 urteen artean beharko luke jaioa izan.

3) Teologian doktore zela eta izen handiko gizona zela. Bere adiskideen laudorioak ikustea besterik ez dago honetaz jabetzeko.

4) Ziburuko parrokiari buruzko datuek<sup>4</sup> zera erakusten dute, 1629. urtean Martin Gastambide zela, oraindik, parroku; baita 1638.ean Jean Haristeguy dela Jean Etcheverry

---

<sup>3</sup>Gure ustez, datuok ez datoz bat jarraian azalduko dituenekin eta beste Etcheberri batez pentsatu beharko genuke. Patri Urkizu, garai hartako beste Etcheberri batez mintzo da. 1989an bere doktore tesia argitaratzen da Mundaizen *Pierre d'Urteren hiztegia* izenburupean. Liburu honen 33. orrialdean, "Protestantak Euskalerrian XVI-XVII. mendeetan" azpiatalean, honela dio: «Baina zer dakigu pertsonai guztietaz? Hona hemen aurkitu dudana kronologikoki emana. Jean ETXEBERRI, detchevery, chevery, La Rive, edo euskaldun ttipia (*Le petit basque*) deitua Donibane Lohizunen jaioa liburu saltzaile zen, edo honela aurkezten zuen bederen bere burua 1552. urte inguruan Figeac-en.». Erreforma predikatzen ibili zen eta «hamar urtez, 1552-tik 1563-ra Quercy eta Revergue eskualdetako erreformaren zabaltzailerik sutsuenetarikoa izan zen. Genčven urte batez teologia ikasketak egin ondoren, Euskalerrian ikusiko dugu Basanafarroan, Donapaleun, hain zuzen». 1578. urtean hil zen Luxeko gazteluan. Aurrerago honela dio Urkizuk (35. or.): «Jean Etcheberri agertzen zaigu ere biztanleen liburu aipatuan honela 'lundy 8 may 1559. Jehan dechebérry, escollier, natifz du lieu de S. Jehan de Lux près Bayonne'». Liburu aipatua P.F. Geisendorf-en *Livre des habitants de Genčve*, T. I. 1549-1560, Genčve 957, 202. or. da.

P. Urkizu bera 1992ko beste artikulu batean, "Pierre D'Urteren hiztegia" *ASJU* Gehigarriak XV. 231-242. or., kontu berberera itzultzen da.

<sup>4</sup>Gure ustez, kasu honetan Pierre Lafitte jaunak Haristoiren *St. Jean de Luz et Ciboure. Souvenirs historiques et révolutionnaires avec quelque pages sur le Pays Basque* liburua izan du iturri datuok emateko. Izan ere, honela dio Haristoik aipatu liburuan (1895: 80-81):

«Curés connus de Ciboure... 1629... Martin Gastambide; -- de... à 1638, Jean d'Etcheverry ou Etcheverri, enfant de la paroisse, docteur en théologie, d'abord vicaire, puis curé. [...] 1638-1656. Jean de Haristeguy, enfant et vicaire de la paroisse, ...»

edo Etcheverriren oinordeko izendatua. Baina ez dakigu zein urtetan hartu zuen Etcheberrik Gastambideren tokia.

Lafitteren datuon arabera, bada, nahiko zehazki koka genezake Etcheberriren jaiotzaren data.

Etcheberrik berak ere azaltzen du bere bizitzari buruzko datuen bat *Eliçara erabiltceco liburuan* (1666: 2):

"Bereciqui ni natçaitçu / Ceren eta çureaz, / Confirmatua içatu / Bainaiz efcu emeaz.  
Nerori anaia laurgarren / Ciburuco templuan, / Ceñetariç bici bainaiz / Bigarrena munduan."

Oihenart, Pouvreauri bidalitako —azken honen hiztegirako zenbait hitz dela eta— 1661.eko maiatzaren 30eko gutunean, «Feu Monsier d'Etcheberry»-z mintzo da.

Lafitte jaunak 1638.ean hil zela dio (1967: 13-14). Nik ez dakit nondik suposatzen duen data hau. 1638.ean, Haristegi da Etcheberri Ziburukoaren oinordeko izendatua. Etcheberri hil egin zelako?

P. Altunak (1981: 8) Paben ikasi zuela dio, jesuiten ikastetxean, Oihenartek bezalaxe. Egin behar izaten zituzten gutxi gorabeherako ikasketak Humanitateak eta gero gainerako ikasketak (Filosofia, Teologia, Zuzenbidea...) zirela dio. Eta Etcheberri Teologia ikasi ezezik dotore izatera iritsi ere egin zen. Ez dugu bere bizitzari buruzko beste datu zehatzik lortu.

## 2. Etcheberriren obra

### 2.1. Lan argitaratuak

Hiru dira Joannes Etcheberriren lan argitaratuak, inprimatuak; ezagunak eta eskuragarri ditugunak behintzat.

#### 2.1.1. *Manual devotioezcoa*

Hau da gurera heldu den Etcheberriren lehen liburu inprimatua. Lehen edizioak 1627.ean ikusi zuen argia, Bordelen Gilen Millangesenean.<sup>5</sup> Hona Vinsonen *Essai...*n aurki

---

<sup>5</sup> Inpresoreei dagokienez, derragun *Manual devotioezcoaren* bi edizio desberdinak Bordelen inprimatuak izan zirela. Ernesto Labadieren *L'imprimerie bordelaise et les livres basques* lana (1913) jarraituko dugu Bordeleko inprimatzaileoi buruzko zertzelada labur batzu emateko.

Simon Milangesek moldiztegi haundi eta garrantzitsu bat kokatzen du Bordelen 1572. urteaz geroztik, baina 1623.era arte ez da moldiztegi honetan euskeraz idatziriko libururik aterako. Urte honetan bertan hil eta Jacques bere seme zaharrenari utziko dio bere moldiztegia. Aipatu lehen euskal liburua Etienne Materreren *Doctrina Christiana*-ren bigarren argitarapena da.

Milangesdarren bigarren euskal argitarapena gure Joanes Etcheberriren *Manual devotioezcoa* da, 1627.ean. Dakigunez, liburu honek Gilen Milanges inprimatzailearen izena darama. Gilen hau Jacquesen

genezakeen aipamena:

"14a.-MANVAL | DEVOTIONEZCOA, | EDO EZPEREN OREN | ORO ESCVETAN ERABILLT-- | çeco liburutchoa. | *Efcarazco verfu tan eguiña, eta guztia | bi partetan bereçia.* | Lehenean iracasten direla, Guirifiño | Commun batec, iaquiñ behar dituen | Gauça guehienac: berçean, errateco | Lituquen, halaber othoitz guehienac.[...]  
BORDELEN, | GVILLEN MILLANGES Erregueren | Imprimatçaillearenean. | - | M. DC. XXVII."

Argitarapen honen garaian, Bordele zen liburuak inprimatzeko lekurik hurbilena. Baionako lehen moldiztegia François Bourdot-ena da, 1642.ekoa. Eta Paben Desbarats sendia 1655.az geroztik baino ez da hasten inprimatze lanetan.

Lehen argitarapen hau in-8 itxurakoa da (16 orrialde pleguko), guztira 346 orrialde idatzi dituela. Bere neurriak honakook dira: 101 mm x 167. Testuak berak 82mm 5 x 149,5 (izenburu eta zeinadurak barne).

Bigarren edizioa 1669. urtekoa da eta hona Vinsonen aipamen bibliografikoa:

"14b.-MANVAL | DEVOTIONEZCOA, | EDO EZPEREN OREN | ORO ESCVETAN ERABILLT- | çeco liburutchoa. | *Efcarazco verfutan eguiña, eta guztia | bi partetan bereçia.* | Lehenean iracasten direla, Guirifiño | Commun batec, iaquiñ behar dituen | Gauça guehienac: berçean, errateco | Lituquen, halaber othoitz guehienac.[...]  
BORDELEN, | I. MONGIRON MILLANGES Erregueren | Imprimatçaillearenean. | - M. DC. LXIX."

Litekeena da Iacobe Mongiron Milangesek lehenaz baliaturik egin izana berrargitarapen hau. In-8 itxurakoa hau ere, foleo erdiz eratua (8 orrialde pleguko).

Neurriak: testuak 88 mm 5 x 152,5, izenburu eta zeinadurak barne. Zeinadura sistema: 1627.eko argitarapenak A p. 1, B p. 17, C p. 33, e.a., K p. 137-ra arte; bigarren liburuak: A p. 1, B p. 17, e.a., O 208. orrialdean. 1669.eko argitarapenak: A p. 1, B p. 9, C p. 17, D p. 25, e.a., S p. 137-ra arte; bigarren liburuan: A p. 1, B p. 9, e.a., eta Cc p. 207.

Vinsonen aurretik, eta Etcheberriren beraren garaikideez landa, Jusef Egiategi ziburutarra dugu liburu honen berri dakarren lehena.<sup>6</sup> Honen ondotik, Aita Larramendi,<sup>7</sup>

---

ondotik etorri zen, 1625.ean, eta Gilen honen oinordeko Mongiron Milanges izango dugu, bere loba, 1650.ean. Mongiron Milanges da, izan ere, *Manual*-aren bigarren argitarapena plazaratuko duena 1669.ean.

<sup>6</sup> Bere *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekhieia* liburuan (1785. urtean argitaratua. Guk darabilgun argitarapena Txomin Peillenek prestatu eta Euskaltzaindiak 1983.ean argitaratua da. Orrialde aipamenak, beraz, edizio honi dagozkio.) Honela dio Egiategik 22. orrialdean: «Berze libürü bat tritia diana Noelak ta berze Espiritual berriak, Baionan moldizkitatia, 1630. urthian, Joanes Etcheberri theologian dotoraren obra; ber ezkiribazaliak egin du ere berze libürü bat, *Hüskararen adretzaz*, mintzo dena». Txomin Peillenek ohar bat jarri du azken baitapen honen segidan: «Hüskararen adretzaz ez du Etcheberri teologoak idatzi, baina Etcheberri medikuak, Larramendik, azken horren eskuidazkia eskuen artean eduki baitzuen» dioena.

<sup>7</sup> Bere *Arte* (1984: 374) eta *Diccionario Trilingüe* liburuetan (1853: xxxi), bietan dugu Etcheberriren lehen liburu honen berri. Ez du jartzen, ordea, zein argitarapenez mintzo den.

Pierquin de Gembloux belgiar midikua<sup>8</sup> eta Francisque Michel.<sup>9</sup> Guzti hauen lana esozoa eta

---

<sup>8</sup> Bere *Histoire Litteraire* liburuan (1858a: 7 gehigarrietan) *Manual*-aren berri izango dugu. Harritu egin gaitu aipatzen duen kontu batek. 1627.eko argitarapenaz mintzo dela, lehen atala in-f. itxurakoa dela dioen bitartean, bigarrena in-8-kotzat du. Ez ote ziren bi atalak batean argitaratu? Gure ustez, Pierquin de Gembloux oker dabil eta bi aleak dira itxura berekoak.

Bere *Bibliographie basque* liburuan (1858b: 7-8) ditugun datuak bat datoz aipatu dugun *Histoire*-ekoekin. Baionako Euskal Museoa lortu ahal izan ditugu Pierquin de Gembloux-en bi liburuok. Lehen, 1841. urtekoaren berrargitarapen bat da; oso ongi gorde da urteetan zehar eta ez du orririk falta eta denak daude bere osotasunean. Bigarren liburua, aldiz, separata bat da. Azalak falta ditu eta norbaitek beranduago, kartulinaz berregin ditu. Aurreko azalean, erako aldean, eskuz idatziriko titulua eta gainontzekoak ageri dira; itzuliko aldean, beste eskuz idatziriko lerro hauek ditugu:

«La brochure donnée au Musée basque est une avec pagination spéciale, de l'ouvrage suivant: Histoire littéraire, // philologique // et // bibliographique // des Patois // et de l'utilité de leur étude // par // Pierquin de Gembloux Nouvelle édition // suivi de la Bibliographie générale des phonopolismes basques.// Paris // Auguste Aubry, libraire-éditeur // rue Dauphine 16 // 1858. [in-8, 339 pages, imprimé à Bourges, chez P. A. Manceron]

Pierquin de Gembloux, né en Belgique, après avoir fait ses études de médecine en France, fut medecin d'un hôpital à Montpellier, puis il entra dans l'Université et devint inspecteur d'Académie à Macon, puis à Bourges.

Polygraphe abondant, il a écrit pour beaucoup de -----, livres et articles (médecine, archeologie, histoire, liguistique). 7.III.1933

Louis Lacroq  
président de la société des  
sciences archiologiques de la ----  
-----»

<sup>9</sup> Honela dio *Proverbes basques d'Oihenart*-en (1847: xl):

VII. Manual devocionezcoa, edo ezperen, oren oro escuetan erabiltçeco liburutchoa. Escarazco versutan eguiña, eta guztia bi partetan bereçia... Bordelen, Guillen Millanges, Erregueren imprimatçaillearenean. M.DC.XXVII. (Manuel de dévotion, ou le petit vade-mecum de tout le monde, fait en vers basques et divisé en deux parties... Bordeaux, Guillaume Millanges, imprimeur du roi, 1627.) In-8<sup>o</sup> de 138 pages, signées A-K, précédées d'un feuillet contenant le tritre ci-dessus, et suivies d'un feuillet blanc.

La licencia vicarii generalis qui se trouve sur le recto du feuillet A, porte: «...manualis, Cantabrico carmine a Ioanne Etxheberri Doctore theologo compositi...» cette licentia est signée M. D'OIHARARD, vicarius generalis.

La première partie de cet ouvrage renferme, en vers de huit syllabes, les principaux mystères de la vie de Jésus-Christ; la seconde partie, également consacrée à des sujets de piété, est en grand vers de quatorze syllabes. Elle est intitulée: Bigarren luburria guiristinoac erran behar lituzqueen othoitceez... Bordelen, Guillen Millanges Erregueren Imprimatçaillearenan. M.DC.XXVII. (Deuxième livre des prières que le chrétien devrait lire... A Bourdeaux, chez Guillaume Millanges, imprimeur du roi, 1627.) De 208 pages, le titre compris; puis viennent quatre feuillets contenant la table des deux parties. La seconde porte les signatures A-N, et la table la signature O.

Oker dago Michel jauna lehen ataleko bertsoak zortziko eta bigarrenekoak hamalau silabatakoak direla baieztatzen duenean, 15 silabatakoak baitira liburu osoak.

Michelen *Le Pays basque* liburuan ere (1857: 487-8) *Manual*-aren lehen argitarapenaren aipamen berbera dugu. Bietan dio lehen argitarapen honen berria Aita Larramendirenetik jaso duela, baina azken hau izenburuen aipamenetan gelditzen da gehienetan.

*Les proverbes basques*-en ere (1847: xlvj) bigarren argitarapenaren berri dugu. Bordelen, J. Mongiron Millangesenean inprimatua, in 8<sup>o</sup> itxurakoa dela diosku.

zehaztasun gutxikoa da. Vinsonen ondorengoak dira Genaro de Sorarrain<sup>10</sup> eta Louis Desgravesen<sup>11</sup> lanak.

Hordago Publikapenak etxea 1669.eko edizio honetaz baliatu zen argitarapen xerokopiatu bat egiteko.<sup>12</sup>

Patxi Altunak, azkenik, *Manual devotioezcoa* honen lehen liburuaren edizio kritikoa paratu zuen 1981.ean, Hordagoren argitarapenaz baliatuz.

Ezin izan zuen Altuna jaunak lehen argitarapeneko alerik aurkitu, batez ere 1669.ekoan 3.438. bertsoaren inguruan bertso batzuk falta zitezkeen, berak uste bezala, edo ez jakiteko.

Patxi Altunaren uste honek bultzatua bibliografia irakurtzen hasi ginen. Vinson-en *Essai...* liburuan (1891-8: 65) 1627.eko ale bat Pariseko Bibliothèque Nationale-n zegoela irakurri ahal izan genuen eta, aipatu bezala, Deustuko Unibertsitateko Eusko Ikaskuntzako Karmele Santamariari esker lortu genuen lehen argitarapen honen mikrofilmaren fotokopia.

Bi argitarapenen arteko konparaketak zera erakutsi digu, Patxi Altunak aipatzen dituen bertso hauetan («Egoquien Aingueru beguirailleei» izenburua duten 3.427-3.442 bitartekoak) 1669.eko argitarapena lerroz lerro dagokiola 1627.ekoari. Ez du horrek esan nahi, ordea, bertso batzuk ezin falta daitezkeenik. Are, 1669.eko argitarapena kaleratzeko aurrekoaz baliatu izan balitz Mongiron Millanges (eta hau geuk proposatutako hipotesi bat besterik ez da) ez zegokeen bigarrenean lehenean ez dagoen bertsoarik.

### 2.1.2. *Eliçara erabiltceco liburua*

Hau da Etcheberriren hirugarren lan inprimatua. Bigarrena *Noelac* da eta jarraiko kapituluan izango dugu mintzagai.

Jusef Egiategi eta Aita Larramendik ez dute beren lanetan aipatzen (ezagutzen ez

---

<sup>10</sup> Bere *Catálogo de obras euskaras* liburuan ere (1898: 46-47) aurkitu ahal izango dugu Etcheberriren liburu honen aipamenik. Vinson jauna jarraitzen duelako susmoa dugu, ordea, eta bildu dituen datu guztiak *Essai...*-n aurkitu dituela.

<sup>11</sup> Louis Desgravesek, bere *Les livres imprimés a Bordeaux au XVII<sup>e</sup> siècle* liburuan, *Manual devotioezcoa*-ren bi argitarapenen berri dakar. 1627. urteko argitarapena bere liburuko 588. zenbakidunari dagokio (1971: 92), erakusten diguna aipamen bibliografikoa besterik ez dela. Vinsonen *Essai...*-n edan du eta ale bat Pariseko Bibliothèque National-en dagoela dio (D. 33.877). 1.346. zenbakia duen aipamenean aurkituko dugu 1669.eko argitarapenaren berri. Kasu honetan ere, Vinsonen *Essai...*-n edan du eta Bordeleko Herri Liburutegian ale ezoso bat dagoela esaten zaigu (PF. 16.185 Rés.).

<sup>12</sup> «Euskal klasikoak» bilduma argitaratzen hasi zen Hordago Publikapenak etxea 1978.ean, eta Joanes Etcheberriren *Manual devotioezcoa* dugu bilduma honetako lehen liburua. Honako hau litzateko aipamen bibliografikoa:

HORDAGO PUBLIKAPENAK, 1978, *Manual devotioezcoa edo ezperen oren oro escuetan errabiltceco liburutchoa*. Etcheberri Joannes, Editorial Lur, Donostia.

omen zutelako?). Badu, haatik, F. Michelek liburu honen berri bere *Proverbes basques-en*.<sup>13</sup>

#### 2.1.2.1. 1636.eko argitarapena

Vinsonen sailkapenaren arabera hiru argitarapen desberdin ezagutu izan ditu liburu honek mendeetan zehar. Hona hemen balizko lehen argitarapenaren aipamen bibliografikoa (1891-8: 76):

"17a.- Eliçara erabilceco liburuia Ioannes Etcheberri Dotor Theologoac eguiña eta iaun Noble Bertrano de Etchavs Turscu Aphezpicu digneari dedicatua. Bordelen, Guillen Millanges Erregueren imprimatçaillea baithan 1636."

Vinsonek dioenez, aipamen hau M. Pierquin de Gembloux-ek egiten du bere *Historie littéraire* liburuan, baina berak zalantzatan jartzen du Pierquin honen lana «insuffisant, désordonné et inexact» delako.

Hau da, izan ere, Pierquin de Gembloux jaunaren aipamena: «Etcheberri Joannes, Eliçara erabilceco liburna, etc., in-18, Bordelen Guillen Milanges Erzegueren, imprimatçaillea baith an 1636, p. 542.» (1958a: 264). Gehigarrietan ere aipamen berbera dugu. Eta bai, baliteke Pierquin-en lana «insuffisant, désordonné et inexact» izatea; baina, dirudienez, begibistan izan du argitarapen hau. Bere neurria (in-18) eta bere orrialde kopurua (542) ere ematen dizkigu. Eta ezagutzen diren beste bi argitarapenak ez datoz bat bi datu hauekin. Baliteke, bestalde, Pierquin de Gembloux berak ere beste nonbaiten jaso izana datuok.

#### 2.1.2.2. 1665.eko argitarapena

Irakurri ahal izan dugun bibliografiak, lagundu beharrean, kasu honetan, nahastu egin gaituela esan behar dugu. Beti bezala, J. Vinson hartu dugu abiapuntu eta bere *Essai...-n* irakurria da jarraian azaldu nahi duguna. Hau da *Eliçara erabilceco liburuia*-ren bigarren argitarapen honen lehen aipamena (1891-8: 77):

"17b.- ELICARA | ERABILTCECO | LIBVRVA. | IOANNES ETCHEBERRI | Dotor Theologoac | eguiña. | *Eta iaun Noble BERTRANO | DE ETCHAVS Turfce* , | *Archiphizpicu dignea- | ri dedicatua*. | (*fleuron*) | BORDELEN , | I. MONGIRON MILANGES, | Erregueren Imprimat- | çaillebaithan. 1665.

Pet. in-8 — (lxvj)-435 p.; signatures: aux fts préliminaires de un à six pieds de loup; pus A p.1, B p. 16 <17>, C p. 25, D p. 41, E p. 49, etc.

— Le texte mesure 86<sup>mm</sup> de hauteur sur 42 de justification.

Je connais trois exemplaires de cette édition, dont un complet. Un des deux autres est à la

---

<sup>13</sup> Hona hemen bere aipamena:

"XVI. L'anné suivante (1666.a), parut à Pau un volumen in-24, sous le titre d'*Eliçan erabilceco liburia* (Livre qu'on doit porter dans l'église); nous ne le connaissons que par la citation fautive qu'en fait le *Mithridates*."

Aipamen honek argi erakusten du Etcheberri Ziburukoaren hirugarren liburu hau oso ezezaguna eta aurkitzen oso zaila izan dela.

Bibliothèque municipale de Bayonne (n° 3822).

Coll.: p. (i-ij) titre, (iij-vj) dédicace, (vij) approbations de MM. Guillentenea et Axular (Sare, 16 mai 166 (*sic*), (vii-ix) vers latins à l'éloge de l'auteur signé d'*Iharce*, (x-xiv) vers français, signés *Casabielhe*, (xv) vers basques signés *J. Claverie*, (xvj) vers: *harc berac <hari> berari*, (xvij-xviii) vers de *Tristand de Aphezte*, (xix) vers: *harc berac <hari> berari*, (xx) division du livre, (xxij-xl) *calendarioaz eta demboren contuaz* «du calendrier et du compte du temps», (xlvj-xlvj) tableaux de l'épacte, de la lettre dominicale et des fêtes mobiles de 1665 à 1683, (xlvj-lxvj) calendrier; — p. 1-82<4>, première partie (devoirs du chrétien), premier traité (prières quotidiennes, en vers); p. 82<5>-134, deuxième traité (doctrine chrétienne, en vers); p. 135-166, troisième traité (de la confession, en prose); p. 167-423, deuxième partie (heures, en vers; les psaumes de la pénitence sont aux p. 316 et suiv.; aux p. 368 à 423 est la dévotion à Marie); p. 425-435, table.

<Commencement des p. 81 Duçun othoi, 192 7. Hargatic, 273 Eta Ifraelen, 346 Bartholome, 403 3. Laurguitu.>"

◇ artean jarri ditugu J. Vinsonen beraren zuzenketa eta gehiketak, hain zuzen ere bere *Essai...*-ren bigarren alean jarri dituenak (aip. lan.: 544). Zuzenketa eta gehiketon artean, honako aipamen berri hau jarri du:

"17 b, c — ELIÇARA, etc.

Edition conforme à la précédente, suf ce qui suit:

Pet. in-12 — (lxvij) - 435 p.

P. (vij) approbations de P. de Archular, P. de Guillantena (22 de mai 166 (*sic*), (vii-ix) vers latins signés «*I. Ihartius in Curia Baionenfi caufarum Patrunus*», (x-xiv) vers français, signés: *I. D. Casabielhe*, s<sup>r</sup> de Chabatenea, de Saint-Jean-de-Luz; (xv) vers basques signés: *Jean Claveria*, *Apezac*;.....(xvij-xviii) vers de *Tristan de Aphezte*, *Apphesac*;..... (xx-xxi) division du livre; (xxij-xxxix) *Calendarioaz*, etc.; (xl) blanc; (xli-xliii) tableaux de 1665 à 1683; (xlvj-lxvij) calendrier; (lxvij) blanc; — 1-82 première partie, premier traité, 83-135 deuxième traité; 135-166 troisième traité; 167-423 deuxième partie (ps. de la pénitence aux p. 316-344, la dévotion à Marie aux p. 368-423); 425-435 table.

Le texte a une justification de 42<sup>mm</sup> sur 98 de hauteur (chiffres et signatures compris).

Erreurs de pagination: 117 pour 107, 30 pour 130, 178 pour 187, 303 pour 203, 149 pour 249, 369 pour 359, 374 pour 363.

Commencement des p. 81 Duçun othoi, 192 7. Hargatic, 273 Eta Ifraelen, 346 Bartholome, 403 3. Laurguitu.

Signatures: préliminaires: un à six pieds de loup aux p. i, xvij. xxv, xlj; — A p. 5, B p. 21, C p. 29, D p. 45, etc., jusqu'à Mm (demi-feuille contenant les quatre derniers feuillets de la table).

Sur quatre exempl. de cet ouvrage et de cette édition que j'ai eus entre les mains, deux avaient à la p. 220 la réclame *harran* en petit texte; les deux autres avaient *hartan* en texte ordinaire. A part cela, les quatre volumes étaient identiques."

Kontua da Vinsonen beraren zuzenketa eta gehiketetan, hau da *Essai...*-ren bigarren alean (aip. lan. 544) aurreko aipamen berri hau dugula (17 b,c). Jarraian 17c aipatzen du. Honek 17a, 17b, 17 b,c eta 17c lekukotasunak eskuartean erabili dituela pentsarazten digu. Bestalde, doktore tesirako erabili dugun materialen artean, Baionako euskal museoan aurkitutako eskuizkribu bat dugu. Honen izenburuan "Comparación de las dos ediciones de 1665 de 'Eliçara erabiltceco liburua' de Joanes Etcheberri" dugu eta kontu guzti hauek sail egiten dute 1665.ean edizio bakarra edo gehiago izan ziren argitzea. Guk 1665.eko zortzi ale desberdin izan ditugu eskuartean eta guztiak datoz bat Vinsonen 17b,c aipamenarekin.<sup>14</sup>

### 2.1.2.3. 1666.eko argitarapena

---

<sup>14</sup> Zehaztasun gehiagotarako ikus Atutxa 1999, *Eliçara erabiltceco liburuar*i eskainitako kapituluari.



Hona, orain, hirugarren argitarapenaren Vinsonen aipamena:

"17 c.- ELIÇARA | Erabiltçeco | libvrua. | ioannes etcheberry | Dotor Theologoac | leguiña. | *Eta Iaun Noble BERTRAND | DE ETCHAVS Turfco*, | *Archiphizpicu digneari | dedicatua*. | Bigarren aldian Imprimatua. | (fleuron) | PAVEN, | Ioannes Desbaratz, | Erregueren Imprimatçaillea | Baithan. 1666."

Hau ere in-8 txikia erakoa da, (ij)-64-517-(xj) orrialdetako. Zeinadurak: aurretikoetan a p. (i), a ii p. 1, e p. 17, i p. 33, ò p. 49; testuan A p. 1, B p. 17, C p. 33, D p. 49, e.a. Neurriak: 50 mm 5 x 96 mm..

1666.eko argitarapen honek 1665.ekoak ez dakartzan bertso batzuk ditu, gure ustez Bernardo Gazteluzarrenak direnak.<sup>15</sup>

## 2.2. Lan argitaragabeak

Bere mendeko bi idazleri esker (Oihenart eta Pouvreau) jakin ahal izan dugu Etxeberri, argia ikusi zuten hiru liburuez landa, beste zenbait izkribu ere idatzi zuela.

Oihenartek, bere *Arte*-an (Lafitte, 1967: 38-39), Etxeberriren bertsogintzaren azterketa egiten du *Manual*-eko adibideak jarritz. Aurkitzen dizkion hutsak direla eta, bere *Noelac*, *Egunoroscoa* eta *Eliçara Erabilzeco*a ez direla hobeak dio. Datu hauen arabera, bada, Etxeberri Ziburukoak *Egunoroscoa* izeneko beste obra bat ere idatzi omen zuen.

Aurrera jarraitzen du bertsogintzaren azterketan eta zera dio, hitz lauz idatzi izan balu garaile aterako zela, inprimatutako obrez aparte, bere senidearteko gutunak, zenbait laguni idatziak, bere hiztegia eta bere aditz jokoek (Oihenartek haren eskuz idatziak ikusi zituenak) ongi erakusten baitute euskaraz izan zuen askitasuna.

P. Altunak *Manual*aren edizio kritikoan (1981:10) *Egunoroscoa* hori *Manuala* bera ez ote den galdetzen dio bere buruari, Etxeberri titulu osotik «oren oro» aldatu eta «Egun oro-scoa» izendaturik. Aita Akesolok zera diosku (1970: 6-7): «Oihenarten lan batean beste bat ere aipatzen da: *Egunorozcoa*. Beste xeetasunik ez digu ematen. Eta esan bearra dago orainarte ez dela orren aztarnarik azaldu, eta beste iñork ez duela bere ezagutzerik eman. Liburu berria ote da, lengoez beste bat ote da, ala besteen zatien bat, edo besteen zatien bati eman ote dio Oihenartek izen ori? Gogoan ar dezagun Elizara erabiltzeko liburuak ere baduela zati bat, *Egunorozko othoitz laburrak* titulutzat daramana. Eta, gaiez, berdintsu da *Manual*aren bigarren zatia ere.

Au esanez, ez dugu ukatu nai liburu ori izan denik. Eta iñoizkoren batean agertu baledi, ongi etorria izango litzateke euskal-literaturan. Bai orixe.».

Eliçara erabiltceco liburuaren 1665.eko edizioaren 435 orrialdeetan zehar hiru atal argi desberdinak aurki genitzake: lehena «calendarioaz edo demboren contuaz tratatua» deritzona eta beste biez hau da liburuan bertan aurkituko dugun aipamena: «Liburu hunen parteac. Liburutcho hau bi partetan berezten da. Iaquiteco Guiriftinoaren eguinbidean, eta

---

<sup>15</sup> Ikus, hemen ere, Atutxa 1999, *Eliçararen kapitulua*.

oreneta othoitcetana. Lehenbicitan partean dire. EGUN OROZCO othoitz laburra. Doctrina Christiana. Eta Cofeatceco antea.»

«Egun orozco» othoitz horiek 1-82 orrialdeetan zehar banatzen dira eta ez dakigu Oihenart atal honetaz ari zenentz egiten zuen aipamena egiten zuenean. Bi lirateke, gure ustez, ikerketa hipotetiko batean jarraitu beharko liratekeen bideak: argitaratu gabe eta, noski, galdua den Etxeberriren laugarren liburu batez ari zenekoa edo, bestela, *Manual devotioezcoaren* bigarren liburuari buruz ari zenekoa.

Ez zaigu, geroztik, beste inor mintzatu Oihenartek aipatzen dituen gainontzeko lan horietaz eta betiko galduak izan daitezkeeneko susmoa dugu.

### 3. Noelak eta testu kritika

#### 3.1. Tradizio moetak<sup>16</sup>

##### 3.1.1. Zuzeneko tradizioa

Hau da Etxeberri Ziburukoak idatzi eta gugana heldu den bigarren liburua eta bera da, alde haundiz, bere liburuetarik argitarapen eta berrargitarapen gehien izan dituen, 10 guztira, antologietan eta argitaratu diren bertso sorta eta abarrez landa.

Oraingoan ere Jusef Egiategi dugu liburu honen berri eskaintzen duen lehena. Ikusi dugunez, «Noelak eta berze Espiritual berriak» idazten du, «Baionan moldizkitatia, 1630. urthian».

Aita Larramendi dugu berri eskaintzen digun bigarrena. Honela dio bere *Diccionario*-n (1853: xxxi)<sup>17</sup>:

4.º Otro librito en dozavo impreso en Bayona año 1630, aunque con muchas erratas. Su autor Joanes de Etxeberri, doctor teólogo. Contiene doscientas cincuenta páginas y está todo él en verso. Su título *Noelak eta berce canta Espiritual berriac*. El asunto es la vida de Cristo y sus principales misterios...

Aita Larramendik 1630.ekoa dela esanagatik, egunera arte ez da urte horretako argitarapenik aurkitu.

Pierquin de Gembloux jaunaren aipamena (1858a: 7 gehigarriak) hau da: «Noelak eta berce canta espiritual berriac in-12, Bordeaux 1630, pp.250».

---

<sup>16</sup> Joseba Lakarrak dioenez (1988b: 120) «testua gureganaino iritsi dakiguke a) zuzenean edo zeharka, b) eskuizkribuz edo imprimaturik eta c) lekukotasun bakarrean edo gehiagotan».

<sup>17</sup> Aita Larramendiren jarraitzaile dugu Fl. Lécluse: honek bere *Euskal Gramatikan* (Lakarra 1987: 843) honela dio: «Le peu de livres imprimés en basque, qui soient parvenus à la connaissance de ce savant jésuite —Larramendi—, se réduit aux suivants: [...] 4§ Noëls, et autres nouveaux Cantiques spirituels, par Jean Etxeberri, docteur en théologie; Bayonne, 1630, in-12». 5§ Autre volume du même auteur, sur le même sujet, intitulé: Manuel de dévotion».

Aita Larramendi eta Pierquin-en datuak ikusita, argi dago kontu batean behintzat ez dabilela oker azken hau: 1630. urtean ez dago (gero ikusiko dugunez) inprimatzailerik Baionan. Ezin izan, bada, lehen argitarapen hau Baionan inprimatua.

F. Michelen *Proverbes basques* liburuko aipamena (1847: xl) Larramendirenetik jasoa da eta ezer gutxi du berririk. *Le Pays basque*-n (1857: 488), ordea, eskuartean argitarapen desberdin bat erabiltzeko aukera izan duela dio, honako aipamen hau eginez:

"Noelac eta berce canta espiritual berriac. Jesus Christoren biciaren misterio principalen gañean. Eta sainduen ohoretan besta buruetacotz. Ioannes Etcheberri Doctor Theologoac egniñac. Baionan, Maffre Baitan, bors Cantognetan, 1697, in-24, 240 pages."

Hemen dugu, bada, Larramendik aipaturikoaz gain, beste argitarapen berri bat.

Behin, L. L. Bonaparteren *Eskuizkribuak-Argitarapenak* liburua (1989) arakatzten geundela, hurrengo bi aipamenok irakurtzeko aukera izan genuen:

352. UN PATRIOTE. Recueil des quelques Eclaircissemens Relatifs au paiss et peuple Basque. Par... Dedié a son Altesse Le Prince Napoléon. Bayonne le 24 Fevrier 1866.

Cuaderno, 41 hoj., 23,5 cm.

Proc.: ADN m/s B-95.

MICROFILM 2 C 27

352bis. (NOTA bibliográfica sobre Joanes Etcheberry).

2 hoj., 27 cm.

Proc.: ADN m/s B-105.

MICROFILM 2 C 27

Euskaltzaindiako Azkue Bibliotekako Bonaparte Printzearen eskuizkribuen mikrofilmetan bilatu eta han aurkitu genuen, «UN PATRIOTE» honen 41 orrien ondoren, Joanes Etcheberri Ziburukoaren *Noelac* eta *Eliçara erabiltceco liburua*-ren aipamen bibliografikoz osotutako bi orri. Lehen orriak *Noelac*-en hiru argitarapen desberdinen berri dakargu; hona zer dioen:

Noelac eta berce canta espiritual berriac. Jesus Christoren biciaren misterio principalen gañean. Eta sainduen ohoretan besta buruetacotz. Joannes Etcheberri doctor Teologoac eguiñciac (eguinac).

Bayonan, P. Fauveten, imprimerian Carmesetaco aldean ---- Sans date --- pagination, titré compris 1 à 250.

L'approbation, datée de Saint Jean de Luz l'aouît 1630 est signée P. de la Masse curée de Saint Jean de Luz et P. de Urthubie docteur en theologie.

La licence, signée par d'Oiherard, vicaire général est donnée à Baione 8 août 1630.

Mais n'indique en quelle anné ce livre a été imprimé, seulement on a placé au dos du livre le titre avec la daté 1630.

-----  
Sous la même reliure vient une autre edition. Le titre est absolument le même; à l'erratum eguinciac, on a substitué une autre faute egniñac.

au bas, on lit

Bordelen, Guillen Milanges Erregueren inprimatçaillea baithan. 1645. pag. titre compris 1 à 251.

Les approbations et license sont exactement reproduits

Les noels contenues dans cette edition occupent jusqu'à 240, les autres pages sont occupées par la table.

Dans la premiere edition il n'y a pas de table, mais on trouve deux noels de plus, entre autres celui qui commence par les mots suivants

Jesus haurtcho larru dedicatua:

Gure gatic çure dolloratua:

Çorcigarreneco odo...tua

-----  
La troisième édition, pour la même couverture, porte le même titre que les deux premières, avec l'erratum egniñac.  
au bas on lit  
Baionan, Maffre baitan bors Cantognetan. 1699. Cette édition est la reproduction exacte de celle de 1645, sans la table.

Itxuren arabera, bada, eskuizkribu honen kasuan ere, L. L. Bonaparte Printzearen lankide edo laguntzaile baten aurrean gaude eta honek, besteren artean, lortu, ezagutu edo eskuetan izan dituen *Noelac* eta *Eliçara erabilteco liburua*-ren berri damaio Printzeari.

Eskuizkribuaren irakurketatik ondorioztatzen dugu, bestalde, aipatzen dituen hiru argitarapenak batean bilduak direna («sous la même relieure» eta «pour la même couverture» dio).

J. Vinsoni esker dakigu (1891-8: 73), gainera, Londreseko British Museum-ean dauden *Noelac*-en hiru argitarapen desberdinak (bere sailkapenaren arabera, 15b, 15d eta 15f) ale batean, berean, direla bilduak; 15f edizioa da, bestalde, amaieran bertso berriak dituen lehena. Argi dago, bada, *herritar* honek aipatzen duen hau eta British Museumekoa bat direla.

Eskuizkribuaren kontua alde batera utzi eta jarrai dezagun J. Vinsonekin. Bera izan da edizio guzti hauek sailkatzen ahalegin gehien egin duena. Eta ez da lan erreza sailkapen hau burutzea. Edizio batzuk ez dakarte argitaratze datarik eta honek zaildu egiten ditu lanok. Jarraian bere *Essai...*-n aurki ditzakegun argitarapen desberdin guztiak (1891-8: 68 hh) erakutsiko ditugu, banan banan.

#### 3.1.1.1. 15a edizioa

"15a.-NOELAC ETA BERCE canta eſpiritual berriac. *Jesus Chriſtoren biciaren myſterio principalen gañean*. Eta fainduen ohoretan beſta buruetacotz. *Ioannes Etcheberri Doñor Theologoac egniñac*. BORDELEN, G. MILANGES, 1630 ou 1631."

Lehenengo argitarapen hau berak suposatutakoa besterik ez da, eta 1630 edo 1631.ean kokatzen du. Bere ustez zilegi dirudi, baimenen datak ikusita, urte horietan argitaratua izan zitekeela adieraztea, ziurrenik Gilen Milangesenean argitaratua gainera. Ez du uste Vinsonek 1630.ean baimena lortu eta 1645.era arte inprimatu gabe izango zenik. Ez zuen, haatik, lehen argitarapen honen alerik aurkitu.

Louis Desgravesen *Les livres imprimés a Bordeaux au XVII<sup>e</sup> siècle* liburuan (1971: 100), argitarapen honen berri dugu. Bertan «D'après Vinson (Bibliographie), p. 76, n<sup>o</sup> 17 a» irakurtzeko aukera dugu. Maiz gertatzen da bibliografo baten ustezko aipamena (Vinson, adibidez) hartu eta liburu hori argitaratua izan dela onartzea (Desgraves, adibidez). Izan ere, liburu honetan argitaratutzat du Desgravesek 1630.eko edizio hau eta Vinsonek argitaratua behar zuela izan baizik ez dio; are, ez dela alerik ezagutzen.

#### 3.1.1.2. 15b edizioa

"15b.-NOELAC | ETA BERCE | canta espiritual | berriac. | *Iefus Chriftoren biciaren my- | fterio principalen gañean.* | Eta fainduen ohoretan befta buruetacotz. | *Ioannes Etcheberri Doctor | Theologoac egniñac.* | (fleuron) | BORDELEN, | GVILLEN MILANGES, Erre- | gueren Imprimatçai-  
llea | baithan, 1645."

In-8 txikia erakoa, 251 orrialde. Neurriak: 45 mm x 98. Zeinadurak: A p. 1, B p. 17, C p. 33, e.a.

P. de la Masse Donibane Lohitzuneko apaizak eta P. de Urthubie Teologian doktoreak baitetsia, 1630.eko abuztuaren 6an. Baimena, *Manual*-ean legez, M. d'Oiharard Bikario Jeneralarena da, urte eta hilabete berbereko egun bi beranduagokoa, 8koa. Joan Ihartius eta Stefano Hirigoitiren laudoriozko bertsoak eta P. Argaiñarats-en akrostiko bat dakartza.

Londresko British Museum-ean lortu genuen argitarapen honen fotokopia bat J. A. Arana Martijari esker.

Desgraves jaunak ere Vinsonen aipamena jarraitu du 1645.eko argitarapen honen berri emateko bere *Les livres imprimés a Bordeaux...* liburuan (1971:122). Ez du, gainera, ezer berririk aipatzen eta ez dirudi alerik ezagutu duenik.

### 3.1.1.3. 15c edizioa

"15c.-NOELAC | ETA BERCE | canta espiritual | berriac. | *Iefus Chriftoren biciaren | mifterio principalen | gañean.* | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *Joannes ETCHEBERRI Doctor | Teolegoac : egniñac.* | (croix entre deux petits fleurons) | BAIONAN, | MAFFRE Baitan bors | Cantognetan. 1697." <sup>18</sup>

---

<sup>18</sup> Baionako artxiboek, 1636.az geroztik, Maffre liburudenda baten aipamena dute; litekeena da Maffre hau Bordeleko Milangesdarren ordezkaria izatea, 1620. urtean Baionako hiriari liburudenda baten alokairua ordaintzen zioten Milangesdarrena; Jean Maffre, hauen artean. Salerosle-liburusaltzaile izan zen Salie-n, Port-de-Castets edo Pont-Magou kalea, egoera zibilaren akten arabera; Bost Cantoñetan, bere izena daramaten liburuenera (Etxeberriren *Noelac*, 1697 eta 1699.eko argitaraldiak).

1705.eko abenduaren 27an hil zen. 7 seme-alaba izan zituen. Beraietariko bat, Saubade, aitaren jarraitzaile izango duguna, 1669.eko irailaren 28an jaio eta 1715eko abenduaren 9an hila. 1707.eko otsailaren 28ko Kontseilu Erabaki batek zera dio, Arnaud Verdier-Maffre liburusaltzaile besterik ez dela izango. 1742.-ean Forest jaunari saltzen dizkio funtsak, honek bere enpleguetariko bat (Jean François Trebosc) bidaltzen duelarik postuaren kargu egitera. Fauvetdarrak ez datoz bat erabaki honekin enplegu hau inolako aprendizko gabea zela uste baitzuten. Prozesuaren datuen arabera, Verdier-Maffreren denda Pont-Mayou kalean, Jean Fauvetena Orbe edo Vieille-Monnaine kalean eta Fauveten alargunarena Orbe kale horretan, kantoian, Karmeldarrendandik hurbil, daude. Jean François Trebosc-ek Bancel delako baten esku uzten ditu bere funtsak Iraultzaren garaian. M. Gosse izan zen Bancel honen ondorengo eta M. Mocodiain M. Gosse honena.

Patentea ordaintzen zuten inprimatzaile eta liburusaltzaileek izaten zituzten eskubideak zirela medio, zeloak ugaritu egiten ziren behar ez zen kontrabandoa sortuz. Fauvet-darren artean ere istilu ugari sortu ziren, hain ziren nabarmenak kompetentzia eta konkurrentzia. 1767.eko ediktuaren ondorioz, beste laugarren liburusaltzaile plaza berria eratzen da Baionan. Lau plazok Trebosc, Paul Fauvet-Duhart, Pierre Fauvet eta Thomas Dhiribarrenen esku izango dira.

1766.az geroztik, Jean Cluzeau liburusaltzailearen izena aurki genezake egoera zibilaren aktetan.

In-8 txikia erakoa, 240 orrialdetako da. Neurriak: 44 mm. x 96. Zeinadurak: A p. 1, B p. 16, C p. 25, D p. 41, E p. 49, e.a.

Baimenak, onespén eta laudorioak besteetakoak dira, argitarapen eta berrargitarapen guztietan bezalaxe.

Argitarapen honen ale baten fotokopia bat Donostiako Urkixo Liburutegian lortu genuen. Beste ale baten fotokopia Chicagoko Newberry Library-n lortu genuelakoan geunden biak konparatu eta aztertzen hasi ginen arte. Azterketa honek, ordea, bi argitarapen desberdinen aurrean gaudekeela erakutsi digu. Hurrengo orrialdeetan ezarri ditugu bi ale hauen konparaketak eragin dituen zerrendak. Argi erakusten dute zerrendok ez dela posible edizio berbereko bi ale desberdinen aurrean izatea. Hona hemen desberdintasun nabariak:

– Zenbait orrialdeetan, lerro kopurua betetzeko, tarteka-marteka jarri ohi diren *orla*-k nahiko desberdinak dira bi aleetan (ikus. 3, 6, 9, 11, 13, 25, 31, 40, 169, 178 eta 213. orrialdeetan agertzen direnak).

– 210-213 orrialdeetan, lerro bateko desoreka dago bi aleen artean.

– G/G: Chicagoko Newberry Library-ko edizioan, beti dugu G. Urkixoko alean, ordea, beti G.

– H/H: Bi aleetan, H maiuskulak agertu behar duen tokian, sarri, batean H maiuskula hori dugu; beste alean, ordea, H bersalita. Beste behin, h minuskulak agertu behar duen tokian ere agertzen da H bersalitori.

– I/J: Chicagoko alean, beti aurkituko dugu I hitz hasieran; Urkixokoan, J.

– K/k : H/H kasuan gertatzen zen berbera dugu hemen ere.

– U/V: Chicagoko alean, V aurkituko dugun bitartean, Urkixokoan U izango da arruntena hitz hasieran.

– z/z: Bata zein bestea agertzen dira. Bata behin ale batean, bestea bestean.

– Eranskinean ikusiko dugunez, bi aleetan hitzak desberdin ebakiak daude adibide askotan.

– Puntuazio markak ere aldatu egiten dira ale batetik bestera.

– Badago n/ñ, n~ txandaketa bi aleetako zenbait adibidetan.

– Txistukari frikari zein afrikarietan ere txandaketa gertatzen da kasu batzuetan.

Aipatu bezala, aurkitu ditugun bi aleen arteko desberdintasun guztiak jarraiko lerroetan doazkizue, eta desberdintasunon aurrean zilegi dirudi bi edizio desberdinen aurrean aurkitzen garela aitortzea eta ez edizio berberaren bi ale desberdinenean.

Zerrendak nola banatu ditugun argitzearren, derragun bost zutabe desberdin aurkituko ditugula orrialdeotan zehar:

1. zutabea ⇒ orrialde zenbakia

2. zutabea ⇒ bertso zenbakia

3. zutabea ⇒ Chicagoko New Berry Library-ko Luis Luziano Bonaparte Printzearen liburutegiko funtsetan lortu dugun alearen aldaerak.

4. zutabea ⇒ Gipuzkoako Foru Aldundiko Urkixo liburutegian lortu genuen alearen aldaerak.

Lehen zutabeko orrialde zenbakiari buruz zera adierazi behar dugu, bi edizioak datozela bat orrialde kopuruan, bi edizioak dutela taiuera berbera (lerro kopuru berbera orrialdeko eta lerroen luzeera berdintsua). Horren ondorioz, orrialde zenbaki bat baizik ez dugu.

Bertso zenbakiari dagokionez zera azaldu behar da, hiru zenbatze era desberdinen aurrean aurkituko garela. Bertsoak beraiek ditugu, batetik, zenbaki normalez zenbatuak. Bertso sorta edo ahapaldi desberdinen izenburuak eta azpi-izenburuak, bigarrenik, IZ1, IZ2, IZ..n kodea dute, izenburu hori lehen, bigarren... lerrokoa dela adierazteko. Bertso edo izenburu ez den lerroak, azkenik, 1L, 2L, n...L kodea du (lehen lerroa, bigarren lerroa...), orrialde bakoitzean berriz hasten delarik zenbatze-prozesua.

Zerrendotan azaltzen ditugun aldaerez landa, badaude azpimarratu nahi genituzkeen honako kontuok:

— Konparaketari ekin diogunean aurki ikusi dugu, inprentan, bertso sorta, ahapaldiak eta atalak banatzeko, orrialde buruetan eta horrelakoetan agertzen direan *orla* gisakoak (inprenta eta edizio bakoitzean bereak dituen arren, hurrengo hau izan daiteke *orla* gisako horien adibide bat: \*\*\*\*\*) desberdinak zirela bi edizioetan. 3, 6, 9, 11, 13, 25, 31, 40, 169 eta 178. orrialdeetan agertzen direnak, horren erakusgarri. 213. orrialdean, bestalde, Urkixoko alean *orla* agertzen den bitartean, Chicagokoan ez dago.

— Urkixoko alean, 210. orrialdeak 20 testu lerro ditu; Chicagokoan, 19. Hurrengo orrialdeetan lerro bateko desoreka dugu, beraz. 214. orrialdean berririo ditugu berdindurik bi aleak, aurrekoa, 213.a, ez baita 20 lerroz betetzen.

— 3. orrialdean, kapitulua hasteko hizkia (kapitularra) oso desberdina da bi edizioetan. Chicagokoan oso estua da; Urkixokoa, aldiz, nahiko zabala.

— 224. orrialdean, azken lerroko 'Larrera egotztera' dugu. 'Larrera' hitzaren lehen hizkia eroria dago Chicagoko alean.

— 116. orrialdean, Urkixoko alean, 116. bertsoa C kapitularraz hasten da. C honek badu azpian , (c hautsiaren marra) jarria, norbaitek eskuz jarria bezala. Hitza 'Cauri' eta C horrek badu barnean z bat, hau ere norbaitek eskuz egina.

Demagun, azkenik, bi edizioen konparaketak eragin duen aldaeren zerrenda:

Orrial.	Bertso. zen.	Chicagoko edizioa	Urkixoko edizioa
003	IZ3	IAVNARI	IAUNARI

004	001L	elkharri	elkharti
005	006L	eguiña,	eguiña ,
005	007L	baitugu	ba tugu
005	10L	deuotionean	devotionean
005	IZ4	VRTHVBIE	URTHUBIE
006	006L	<i>Ioanne</i>	<i>Joanne</i>
007	005L	Pyerides	Pierides
007	IZ4	IOAN	JOAN
007	IZ8	IOAN	JOAN
009	003L	<i>Gure</i>	<i>Gure</i>
009	008L	<i>Berriz</i>	<i>Berriz</i>
009	014L	<i>Guztientçat</i>	<i>Guztientçat</i>
009	014L	<i>Guztientçat</i>	<i>Guztientçat</i>
009	014L	<i>azpiko</i>	<i>azpiko</i>
009	015L	<i>Etcheberric</i>	<i>Etcheberric</i>
009	IZ1	<i>IOANNES</i>	<i>JOANNES</i>
011	IZ4	HVNEN	HUNEN
012	007L	Iaincoren,eta	Iaincoaren, eta
013	002L	dire. Lehenbi-	dire . Lehenbi-
013	005L	Gaucē	Gauce
013	IZ1	HVNEN	HUNEN
013	IZ1	LIBVRVTCHO	LIBURUTCHO
016	0039	captiuo	captivo
017	0070	khoroa	khoroa
017	0074	iharroffico	iharroffico ,
018	0089	Bathleengo	Bethleengo
018	IZ2	<i>Ezech.</i>	<i>Ezech.</i>
020		20	02
020	IZ4	<i>Abendocotz</i>	<i>Abendocotz&lt;</i>
021	0129	Eikhar	E(?)khar
021	0132	aurkhitu	aurkhitu
0212	3887	ontalfunetara	ontalfuuetara
022	IZ3	<i>Abendocotz</i>	<i>Abendocotz</i>
022	IZ6	<i>Helespontica</i>	<i>Helespontica</i>
026	0210	Gur	Gut
026	0214	conuerfatu	converfatu
026	0218	Vtci	Utcı
027	IZ4	<i>Escaraz</i>	<i>Escaraz</i>
029	0267	Hill,	Hill ,
029	0268	inuiatcera	inviatcera
029	IZ3	<i>Iacobus</i>	<i>Jacobus</i>
030	0285	LAu	LAur
030	IZ1	<i>Iudas</i>	<i>Judas</i>
031	0300	<i>bicitcea</i>	<i>bicitcea.</i>
031	IZ1	<i>Gabriel</i>	<i>Gabriel</i>



032	0318	Vrrearen	Urrearen
034	0365	Vngui	Ungui
035	0367	Vngui	Ungui
036	IZ1	Gabrielec	Gabrielec
037	0412	khurtcen	khurtcen
037	0414	vnhatua	unhatua
037	0417	Vngui	Ungui
037	0419	Vngui	Ungui
037	0425	ikhuffi	ikhuffi
038	0427	lekhtuc	lekhtuc
038	0429	Vngui	Ungui
038	0431	Vngui	Ungui
038	0433	Vfte	Ufte
038	0435	Ikhuftera	Ikhuftera
038	0445	Vngui	Ungui
040	0471	Bera	Beta
040	IZ3	IESVS	JESUS
040	IZ3	IESVS	JESUS
040	IZ5	gañean	Gañean
040	IZ6	<i>vesperacotz</i>	<i>vesperacotz</i>
041	0476	Auguftoren	Auftoren <sup>19</sup>
041	0484	lekhuetan	lekhuetan
042	0503	ekharri	ekharri
042	0510	erakharri	erakharri
042	0518	hirira.	hirira,
047	0602	Mira culuz	Miraculuz
047	0606	vngui vnhatu	ungui unhatu
047	0608	Vngui	Ungui
048	0613	vtzquitçue	utzquitçue
048	0624	fortceco,	fortceco.
048	IZ1	<i>Iefus</i>	<i>Jefus</i>
049	0634	leku	leku
049	0634	leku	leku
050	0654	dela,	dela ,
050	IZ2	<i>gauean</i>	<i>ganean</i>
051	0670	gaua,	gaua ,
052	0702	vrean	urean
055	0766	Iofeph	Jofeph
055	IZ1	<i>Nola</i>	<i>Nola</i>
056	0772	mintçatu	maintçatu
056	0774	Haur	Haur
056	0781	vngui	ungui
056	0786	Haur	Haur
057	0792	Hambat	Hambat
057	0807	Haurra	Haurra
058	0814	Haurtchoaren	Haurtchoaren

---

<sup>19</sup> 'Auftoren' jarriagatik, aurreko orrialde barreneko deia osorik dago, 'Auguftoren'.

058	0819	Haurtho	Haurtho
059	0846	gratia:	gratia :
059	0848	Vngui	Ungui
060	0863	guere	gure
061	0876	Vtci	Utei
061	0881	Vngui	Ungui
062	0902	Fiñ	Fin
062	0906	Gure	Cure
062	0908	Ceure	Geure
063	0915	hedoietaric	Hedoietaric
063	0917	vtz	utz
063	0918	hespilletan	Hespilletan
063	0929	gauaz	hauaz
063	0930	haguit	Haguit
064	0938	Hots	Hots
064	0950	Vtci	Utei
064	DEIA	<i>Noca</i>	<i>Nola</i>
065	0953	GVztiac	GUztiac
065	0966	ttpia	tipia
066	0973	Vrrunago	Urrunago
067	1008	harturic,	harturic.
068	1025	ciot en,	ciot en ,
069	1033	iuiatu	iviatu
069	1038	herodes	Herodes
070	1053	urgullua	urgullua
071	1077	farri,	farri ,
071	1078	Batçarrean	Barçarrean
073	1108	vrean	urean
073	IZ1	<i>Iefus</i>	<i>Jefus</i>
074	1141	Vrre	Urre
074	1147	vrreaz	urreaz
075	1161	Iofeph	Jofeph
076	1182	Iofeph	Jofeph
076	1187	Iofephec	Jofephec
077	1195	Vftez	Uftez
077	1198	Gauaz	Gauas
078	1219	Eceñ	Ecen
079	1225	Herodes,bel-	Herodes , be-
079	1240	baitçuen <sup>20</sup>	Baitçuen
079	IZ1	Vrgulleriaren	Urgulleriaren
080	1253	urgulluac	urgulluac
080	1257	herodessfec	herodessfec
080	1262	Hill	Hill
081	1268	vnhatcen	unhatcen
082	1292	vftean	uftean
083	1303	vrthetaraño	urthetaraño

---

<sup>20</sup> Ahapaldia hasiko bailuen, hitzaren aurretik bi hutsune dago.

083	1306	ingurucoae	ingurucoac
084	1328	Vrricaldu	Urricaldu
084	1336	Vtci	Utci
084	1341	Herodiffec	Herodessfec
085	1348	Iofephec	Jofephec
085	1349	vngui	ungui
087	1391	vtz	utz
087	1392	vmeac	umeac
087	1403	vzten	uzten
088	1407	vr	ur
090	IZ2	vrthe	urthe
090	IZ4	Noela	Aoela
091	1466	vtci	utci
091	1469	Iefus	Jefus
091	1475	Iefus	Jefus
092	1493	Vngui	Ungui
092	1495	deuotionerequin	devotionerequin
092	1499	Iefuffen	Jefuffen
093	1506	Iefus	Jefus
093	IZ4	Candelerocotz.	Candelerocotz.
094	1528	Haren	Haren
094	1529	Huna	Huna
094	1530	Vffo	Uffo
094	1540	Iofeph	Jofeph
095	1547	Deuotqui	Devotqui
095	1549	vtzten	utzten
096	1573	Iofeph	Jofeph
096	1581	Iofeph	Jofeph
096	IZ1	Iefus	Jefus
097	1587	Iofeph	Jofeph
097	1591	Vftez	Uftez
097	1598	Vrrum	Urrum
097	1599	Iefus	Jefus
097	1602	vftean	uftean
097	1603	vtci	utci
098	1623	Iefus	Jefus
099	1631	vtci	utci
100	1653	Iofeph	Jofeph
101	1674	pifatu	pifatu ,
101	1677	Iudeaco	Judeaco
101	IZ2	LIBVRVTCHO	LIBURUTCHO
101	IZ2	HVNEN	HUNEN
101	IZ4	IESUS	JESUS
101	IZ8	Iefus	Jefus
101	IZ9	fartcearen	fortcearen
102	1688	Deuotqui	Devotqui
102	1696	vfaturic	ufaturic
103	1710	ingurateco,	ingurateco:
103	1713	vtcico	utcico

104	1737	Vngui	Ungui
104	IZ3	<i>il<del>h</del>hi</i>	<i>ilkhi</i>
105	1739	Vngui	Ungui
105	1746	Hirico	hirico
105	1748	Hain	hain
105	1750	bidea,	bidea ,
105	1758	Hitzten	Hitzten
106	1775	deuotione	devotione
106	1779	Han	Han
107	1782	Hitz	Hitz
107	IZ1	<i>bekhaiz-</i>	<i>bekhaiz-</i>
108	1820	handirequin	Handirequin
109	1833	Hala	Hala
109	1839	Hec	Hec
110	1844	Jefus	Jefus
110	1846	inuidia	invidia
110	1850	herroffoec	Herroffoec
110	IZ1	<i>Inuidia</i>	<i>Invidia</i>
110	IZ1	<i>Jefus</i>	<i>Jefus</i>
111	1859	vtzten	utzten
111	1861	Jefus	Jefus
112	1882	Hura	Hura
112	1886	iuiatu	iviatu
113	1918	Cortean	Cottean
113	1919	Jugearen	Jugearen
114	1923	inuidia	invidia
114	1929	Vrricalduric	Urricalduric
114	1929	vtcico	utcico
114	1930	vftcan	uftcan
114	1940	vriz	uriz
115	1942	vſpelez	uſpelez
115	1953	IUgeori	IUgeori
115	1958	Jefus	Jefus
115	1960	illkhitcera	illkhitcera
116	1970	Vrratſic	Urratſic
116	1974	Haren	Haren
116	1976	Hartan	Hartan
117	1988	Haren	Haren
117	1994	Haren	Haren
117	1998	handitan	Handitan
117	1999	hequin	Hequin
117	2003	hill	Hill
119	2025	Iudas	Judas
119	2028	vrkhatu	urkhatu
120	2050	Hambat	Hambat
120	2051	Hirurgarren	Hirurgarren
120	2057	GVrutcearen	GUrutcearen
120	2059	Jefus	Jefus

120	2064	Barkha	Ba ha
120	2064	omenac,	omenac.
121	2074	Iugearen	Jugearen
122	2107	Ioseph	Joseph
123	2115	Ioseph	Joseph
123	2123	Iefus	Jefus
123	2124	kats	Kats
123	2127	ontaffum	ontaffun
123	IZ1	<i>Gurutcearen</i>	<i>Gurutcearen</i>
124	2131	lançaz	lançaz,
124	2133	Iefus	Jefus
124	2135	vngui	ungui
124	2139	Deuotionez	Devotionez
124	2147	Caluariaco	Calvariaco
125	2168	Vrruitira	Urruitira
125	2174	barkhatuco	barkhatuco
126	2180	iauftean	lauftean
126	2181	oliva	oliva
127	2204	Iefus	Jefus
127	2213	Ceru,lurreco	Ceru, lurreco
129	2246	Iefus	Jefus
129	IZ1	Iefus	Jefus
130	2258	<i>pitztu</i>	<i>piÖtu</i>
130	2258	<i>pitztu</i>	<i>piÖtu</i>
130	2271	Vnguentu	Unguentu
130	2273	Aaingerua	Aingerua
131	2289	Thomba	Tomba
131	2293	huna	Huna
132	2297	vnguenturic	unguenturic
132	IZ3	<i>ekhar</i>	<i>ekhar</i>
133	2334	Vngui	Ungui
134		fala	
134	2344	Aurkhitu	Aurkhitu
134	IZ1	Iefu	Jefu
135	2360	vqui	uqui
135	2362	Vquitu	Uquitu
135	2367	Vquitu	Uquitu
136	2387	IVdu	IUdu
137	2411	lekhtic	lekutic
137	2411	lekhtic	lekutic
137	3395	vrre	urre
138	2433	Iefus	Jefus
139	2438	piz	pitz
139	2439	berac	betac
139	2444	vtci	utci
139	2448	vrratu	urratu
139	IZ1	Iefus	Jefus
140	2456	vrreizpiac	urreizpiac

141	2476	vda	uda
142	2497	çuten	çuten ,
142	2500	vrthe	urthe
142	2500	gueroz	Gueroz
143	2514	Vrgullua	Urgullua
143	2515	baitutu	baitutu
143	2518	Vrrezco	Urrezco
143	2523	Seraphiñac	Seraphinac
143	IZ1	Iefus	Jefus
144	2533	OLibethco	OLibetcho
144	2544	elkharren	elkharren
144	2547	ekharri	ekharri
144	DEIA	Ardiant	Ardiantchu
145	2553	Gaixtoec	Gaiztoec
145	2553	vfteco	ufteco
145	2558	nekhaturen	nekhatu ren
145	2558	nekhaturen	nekhatu ren
145	2562	Caiutzela	Catiutzela
145	2569	GVztiac	GUztiac
146	2573	dohaccabeac	dohacabeac
148	2615	Khorobat	khorobat
149	2631	ikhuffi	ikhuffi
150	2657	Iefus	Jefus
151	2675	kharrezco	kharrezco
151	2681	ilkhi	ilkhi
151	2683	Erai teco	Etai teco
151	2683	Eraiteco	Etai teco
152	2701	Iefus	Jefus
152	2706	Segurantçaz	Segurançaz
153	2721	Iefus	Jefus
157	2788	Vffain	Uffain
157	2801	Iefus	Jefus
158	2825	Oriente,	Oriente ,
158	2828	vniuerfoan	univerfoan
160	2855	vtzten	utzten
160	2871	Hau	Hau
161	2889	vquitcea	uquitcea
161	2890	trumpatcẽ	trumpatcen
162	2900	Hemen	Hemen
163	2917	Arren	Aren
163	2922	Iefus	Jefus
163	2929	Iefus	Jefus
164	2937	GViriftinoac	GUIriftinoac
164	2940	Iuge	Juge
164	IZ1	Azken	Azken
165	2963	Iugeari	Jugeari
166	2975	Iugearen	Jugearen
166	2984	Iugea	Jugea
166	2991	ekharle	ekharle

167	3000	ederrean	ederrean.
167	3014	urricaldu	urricaldu
168	DEIA	Vrricaldu	Urricaldu
169	3040	Vrricaldu	Urricaldu
169	3042	kharrera	kharrera
169	3043	Vrricaldu	Urricaldu
169	3053	Iefus	Jefus
170	3059	bequiezquitçue	bequitzquitçue
170	3059	Vrrical	Urrical
170	3061	Vrrical	Urrical
170	IZ1	vmea	umea
171	3078	vrricaltcen	urricaltcen
172	3095	Iofeph	Joseph
172	3102	fauorea	favorea
172	3104	Iefus	Jefus
173	3123	fauore	favore
173	3132	fauore	favore
174	3141	vrrical	urrical
175	3164	Vfatu	Ufatu
175	3165	Vrrea	Urrea
175	3169	Barkha	Barkha
175	3173	ikhufsten	ikhufsten
176	3190	fauore	favore
177	3210	fauore	favore
177	3215	fauore	favore
178	IZ1	HVNEN	HUNEN
178	IZ1	HIRVR	HIRUR
178	IZ1	LIBVRVTCHO	LIBURUTCHO
178	IZ10	<i>gutçaz</i>	<i>gutçaz</i>
179	3225	Vrthearen	Urthearen
179	3237	Akhabatu	Akhabatu
180	3252	proidentia	providentia
184	3320	billkhu	billkhu
184	3322	Fauoratcen	Favoratcen
184	3323	fauore	favore
184	3328	Airea	Aitea
184	IZ2	<i>Asteazkenecotz</i>	<i>Asteazkenecotz</i>
185	3355	Eua	Eva
186	3363	Fauora	Favora
187	3383	Inuidiaz	Invidiaz
187	3393	Saluatore	Salvatore
187	3395	Iuiatcera	Iviatcera
188	3412	fauorea	favorea
189	3416	kharrez	kharez
189	3419	Iauna	Iaunac
189	3431	deuot	devot
190	3438	fauorea	favorea
190	3442	bakharric	bakharric
190	3451	vrthe	urthe

190	IZ2	larumbatecoz	larumbatecotz
191	3459	Ikhuftera	Ikhuftera
191	3470	Eskuñean	Eskuñean
192	3478	Iefus	Jefus
192	3481	vtciric	utciric
192	3481	Vr	Ur
192	IZ2	<i>befetacotz</i>	<i>befetacotz</i>
193	3494	Vrean	Urean
194	3513	Iefus	Jefus
194	3515	vtci	utci
194	3518	Azkenean	Azkenean
194	3520	Vkhatcera	Ukhatcera
195	3534	Iefus	Jefus
195	3544	fauorea	favorea
196	3553	erakharri	erakharri
196	3556	vkharacitcera	ukharacitcera
196	3556	vkharacitcera	ukharacitcera
196	3561	Ikhuffiric	Ikhuffiric
197	3579	Fauora	Favora
197	3581	faindua,	faindua ,
198	3590	Vngui	Ungui
198	3605	Auariciaric	Avariciaric
199	3615	Vngui	Ungui
199	3617	vngui	ungui
200	3632	urrats	urrats
200	3642	nekhatuac	nekhatuac
201	3653	deuoten	devoten
201	3660	Nauffitçat	Nauffitça
201	3662	diligentena,	diligentena
201	3666	azkenic	azkenic
202	3668	Aurkhitmen	Aurkhitmen
205	3711	vrrezco	urrezco
206	3754	vrrezcoac	urrezcoac
206	3759	fauore	favore
207	3772	altchatu	alchatu
207	3773	deuotequien	devotequien
207	3777	egunac	eguinac
207	3784	Deuoten	Devoten
207	3785	Vmeac	Umeac
208	3792	Ikhusten	Ikhusten
208	3805	Vme	Ume
209	3810	nekhatcen	nekhatcen
209	3823	vmeac	umeac
210	3840	fauorean	favorean
210	IZ2	Mikhelecotz	Mikhelecotz
211	3864	lekhtuc	lekhtuc
212	3872	caltetacoac.	caltetacoac
212	3875	vriez	uriez
213	3892	kharrean	kharrean



213	3907	Vrrical	Urrical
214	IZ1	LIBVRVTCHO	LIBURUTCHO
214	IZ1	HVNEN	HUNEN
214	IZ1	LAVR	LAUR
217	3961	elkhar	elkhar
218	3982	erakharri	erakharri
218	3984	Ioannes	Joannes
218	3997	vr	ur
219	4011	b çare	baçare
220	4028	lokharrien	lokharrien
220	4034	Ikhaffiei	Ikhaffiei
221	4043	baian	bain
221	4058	Burua	Buruac
223	4093	Akhitzco	Akhitzco
223	4095	ekharri	ekharri
224	4104	Cini tuzten	Cinituzten
224	4109	Iugeac	Jugeac
224	4112	Vkhatcera	Ukhatcera
224	4112	Vkhatcera	Ukhatcera
225	4128	barkhatu	barkhatu
225	4136	Vrruititic	Urruititic
225	4144	Ikhuffi	Ikhuffi
226	4186	azkennean	azkenenean
226	4186	azkennean	azkenenean
227	4171	cirē	ciren
227	4171	Gorputz	Gorpuz
227	4184	azken	azken
228	4196	Deuoten	Devoten
228	4197	fauore	favore
229	4206	vkhatu	ukhatu
229	4210	vmea	umea
230	4247	Fauora	Favora
231	4260	deuotetan	devotetan
231	4265	vrez	urez
231	4269	Trauailuac	Travaiiluac
232	4276	vnhaturic	unhaturic
232	4281	Iefus	Jefus
232	4289	vtci	utci
233	4295	Gambiatuco	gan biatuco
233	4298	vriquitu	urriquitu
233	4300	conuertitu	convertitu
234	4319	ordena	ordenac
234	4322	Conuentu	Conventu
234	4324	baiño	baino
234	4334	Vrrunena	Urrunena
235	4345	Patriarkha	Patriarkha
235	4350	Ene	Eene
235	4355	cargua	carguia
236	4360	foldaduac	foldaduac.

236	4370	vrguilluac	urguilluac
236	4371	Iefus	Jefus
237	4392	azkenac	azkenac
237	4398	conuertitcen	convertitcen,
237	4398	conuertitcen	convertitcen
238	4419	aurkhitu	aurkhitu
238	4805	Efcolac	Efcoluac
239	4425	Orañ	Orain

Aurrerantzean, gure geure zerrenda eta lanetarako 15c eta 15c-1 izendatuko ditugu; 15c, Chicagoko Newberry Library-ko Luis Luziano Bonaparte Printzearen funtsetan dagoen alerako; 15c-1, Donostiako Urkixo liburutegian dugunerako. 15b argitarapenarekiko konparaketak zera erakutsi digu, posible dela Chicagoko argitarapena izatea haren hurrengo eta ez Urkixokoa (horregatik izendatu dugu 15c Chicagokoa eta 15c-1 Urkixokoa). Dena den, lanaren ariak berak erakutsiko du zuzen ala oker gabiltzan.

Hau da, izan, 15c izendatu dugun argitarapenaren aipamen bibliografikoa:

NOELAC | ETA BERCE | canta espiritual | berriac. | *Iefus Christoren biciaren | misterio principalen | gañean.* | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *Ioannes ETCHEBERRI DoĖor* | Teolegoac : egniñac. | (gurutze bat lore artean) | BAIONAN, | MAFFRE Baitan bors | Cantognetan. 1697.

#### 3.1.1.4. 15d edizioa

"15d.-NOELAC | ETA BERCE | canta espiritual | berriac. | *Iefus Christoren biciaren | misterio principalen | gañean.* | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *Joannes ETCHEBERRI DoĖor* | *Teolegoac egniñac.* | (croix entre fleurons) | BAIONAN, | MAFFRE Baitan bors | Cantognetan. 1699."

In-8 txikia erakoa, 240 orrialdetako. Edizio hau 1697koari dagokio hitzez-hitz eta Vinsonen data okerrekoa zela uste izango zukeen, hiru pertsona desberdinek hirurak 1699.ekoa irakurri zutela esan ezbalio.

Oraingoan ere Londresen lortu genuen argitarapen honen ale baten fotokopia.

#### 3.1.1.5. 15e edizioa

"15e.-NOELAC | ETA BERCE | canta espiritual | berriac. | *Iefus Christoren biciaren | misterio principalen | gafiean.* | Eta fainduen ohoretan befta buruetacotz. | *Ioannes ETCHEBERRI DoĖor* | *Teolegoac egnifac.* | (croix simple) | BAIONAN, | MAFFRE Baitan, bors | Cantognetan. 1699."

Hau ere in-8 txikia erakoa, 240 orrialdetako. (241 orrialde zenbatu dira, baina hau 89. zenbakia falta eta 88.aren ondoren 90.a datorrelako da. Zenbaki honetatik aurrera, bada, erako orrialdeak zenbaki pareak dituzte, ezpareak itzulitakoak.) Zeinadurak: A p. 1, B p. 17, C p. 25, D p. 41, E p. 49, e.a. Neurriak: 41 mm. 5 x 96,5.

Berezitasun nabari bat dauka, 220. orrialdetik aurrera testuko letra desberdina da,

askoz txikiagoa. Vinsonen ustez (1891-8: 70), argitarapen hau aurrekoaren faltsupena edo kontraegina da. Ez dugu argitarapen honen fotokopiarik eskuratzeko aukerarik izan, bai, ordea, Donibane Lohitzunen Maria Josefá Lanuzarenean aurkitu dugun alea aztertzeke eta berezitasun guztien oharrak hartzeke.

Ikusi dugu 15a eta 15b (lehena benetan argitaratu zela suposatuz) argitarapenak Bordelen, Gilen Milanges erregearen inprimatzailearenean inprimatu zirela. Hurrengo laurak (15c, 15c-1, 15d eta 15e) Mafre baitan inskripzioa dakarte.

### 3.1.1.6. 15f edizioa

"15f.-NOELAC | ETA BERCE | canta espiritual | berriac. | *Jefus Christoren biciaren | misterio principalen | gañean.* | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *Joannes ETCHEBERRI DoĖor | Teolegoac egniñciac.* | (croix entre fleurons) | BAYONAN, | P. Fauveten, Imprimerian | CarmellĖtaco aldean."<sup>21</sup>

Hau ere in-8 txikia erakoa, 250 orrialdetakoa da. Zeinadurak: A p. 1, B p. 17, C p. 25, e.a. Neurriak: 45 mm x 95. Betiko gaiak dakartza. Urkixo Liburutegian lortu genuen edizio honen fotokopia bat.

Argitarapen honen amaieran aurrekoetan agertzen ez diren bertso sortak ditugu: 241. orrialdean *verbum caroac*, euskaraz; 245.ean *claritates guĖia*, Ama Mariari eskainitako abestia; 249. orrialdean *Iesus Haurtcho larru*, Iesusen zirkuntzizioari buruzko bertsoak.

Izan dugu edizio honen bi ale eskuartean erabiltzeke aukera. Bat Julio Urkixo Liburutegian dagoena eta bestea Londreseko British Museumekoa. Hauek dira gainbegirada azkar baten ondorengo bien arteko desberdintasunak:

---

<sup>21</sup> Fauvetdarren artean Antonio da ezagutzen dugun lehena. 1652. urtearen inguruan jaioa, oso gazte etorri zen Baionara eta 1667.az geroztik Baionako hiriak inprimatzaile soldata ordaintzen dio. 100.ean hiltzen da eta berak utzitako tokia Paul Fauvet bere semeak hartzen du 1700.eko maiatzaren 24an.

1704.eko uztailearen 21eko Estatu Kontseiluaren Erabaki batek Baionako inprimatzaile kopurua bitan jartzen du eta bigarren plaza hau Etienne Labotticrek hartzen du. 1725ean, uzten duenean, Paul Fauvet eta bere seme Jeanek eskatzen dute, eskaera onartua delarik. Paul zaharra 1736.eko azaroaren 16an hil zen.

Noelac liburuaren 15f edizioaren bi ale desberdinen konparaketa		
or.	Urkixoko alea	Londreseko alea
		⊖ Liburu-aurreko orrialdean, barrenean, 1682.eko data dago jarria eskuz. Vinsonen ustetan (Vinson, 1891-8: 71), datu hau ez legoke ondo P. Fauvet izeneko lehen inprimatzailea ez baita 1700.az baizik inprimatzaile.
30	30	⊖ Bigarren zifra jausia.
98	⊖ Azken hiru bertsoak jausiak.	
109	⊖ Orrialde zenbakia ezkerraldean jarria.	⊖ Orrialde zenbakia eskumaldean jarria.
110	101	110
123	123	12
208	08	8
211	⊖ Azken bertsoan <i>tutçue</i>	⊖ <i>tutçue</i> -ren azken letra jausia.
219	18	118
229	⊖ Orrialde zenbakia ezkerraldean jarria.	⊖ Orrialde zenbakia eskumaldean jarria.

### 3.1.1.7. 15g edizioa

"15g.-NOELA | ETA | BERCE | CANTA | ESPIRITUAL BERRIAC. | *Jefus Chriftoren hiciaren miferio | principalen | gañean.* | Eta fainduen ohoretan belfa | buruetacotz. | *Joannes ETCHEBERRI DoĖor | Teolegoac egnifiac.* | (3 fleurons, deux et un) | BAYONAN, | J. FAUVET, Imprimatcaillea | baithan, bortz-Cantoiñetan."<sup>22</sup>

Hau da era desberdineko bakarra, in-12koa, 204 orrialdetakoa. Zeinadurak: A p. 1, B p. 13, C p. 25, D p. 37, E p. 49, e.a. Neurriak: 58 mm x 112.

Argitarapen honek ere besteetan agertzen ez diren bertso sorta batzuk ditu amaieran. 195. orrialdean, *Stabat*-en itzulpena; 198.ean, *Gaudeac*, Andra Mariari eskainiriko latinezko bertsoak; 200. orrialdean, *Stabat* latinez, eta 202. orrialdean erregeari eginiko otoitza latinez.

Vinsonek zera dio, Jean Fauvet 1731. urtean hasi zela inprimatzen; 1760.ean hil zen. Argitarapen hau, beraz, data hauen artekoa dateke.

Honen fotokopia bat ere Urkixo Liburutegian lortu genuen.

<sup>22</sup> Paul Fauvet hiltzen denean bere ondasunak bere alargunari uzten dizkio; honek bere seme Jeanekin bat egin zuen ondasun horien hustiakuntzarako. Jean Fauvet 1760.eko apirilaren 8an hil zen; beraz, edizio hau 1731-1760 urte bitartean kokatu beharko genuke.

### 3.1.1.8. 15h edizioa

"15 h.-NOELA | ETA BERCE | canta fpiritual berriac. | *Jefus Christoren hiciaren | misterio principalen gañean.* | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *Joannes ETCHEBERRI DoĖor | Teolegoac egnifiac.* | (croix simple) | BAYONAN, | P. FAUVET, Imprimatcaillea | baithan, Carmefen aldean"<sup>23</sup>

In-8 txikia erakoa, 240 orrialdetakoa. Zeinadurak: A p. 1, B p. 17, C p. 25, D p. 41, e.a.; neurriak: 45 mm x 97.

Argitarapen honetan, 211. orrialdetik aurrera, letraren neurria txikiagoa da. Orain arte, testua besterik ez zuten orrialdeek 22 lerro izan badute, hemendik aurrera 27 izango dituzte. Jean Fauveten argitarapenean amaieran agertzen diren bertso sorta berri berberak agertzen dira honetan ere.

Argitarapen honen fotokopia bat Chicagoko Newberry Library-n lortu genuen.

### 3.1.1.9. 15i edizioa

"15i.-Noela | eta berce | canta fpiritual berriac. | Jesus Christoren mis- | terio principalen gañean | Eta sainduen ohoretan besta | buruetacotz. | Joannes Etcheberri, | Doctor Theologoac egnifiac. | Bayonan, | P. FAUVET, Imprimatcaillea | baithan, Carmefen aldean"

In-8 txikia erakoa, 230 orrialdetakoa. Zeinadurak: A p. 1, B p. 17, C p. 33, D p. 49, e.a. Neurriak: 51 mm. x 89.

---

<sup>23</sup> Jean Fauveten anaia, Pierre Fauvet, Bordelen De la Court-ekin lan egina zena, bi aldiz izaten da hartua inprimatzaile-liburusaltzaile gisa; 1737.eko ekainaren 7an bere aitaren tokian, eta 1757.eko abenduaren 23an bere amarenean.

Anne Boudérekin ezkondua, besteak beste, Pierre Hyacinthe Fauvet semea izan zuten, 1731.eko martxoaren 27an jaioa eta geroago bere aitaren tokia hartuko zuena, Fauvet gaztea izenez.

Litekeena da bere ama eta anaiarekin batera lan egitea 1757.erarte, orduan baizik ez zuela bere moldiztegi-liburudenda izango.

Jean Fauvet 1760.eko apirilaren 8an hil zen eta bere seme Paulek jarraitzen du bere tokian, 1760.eko irailaren 15ean errege patentea lortu eta urriaren 6an dagielarik zin. Fauvet-Duhart edo Duhart-Fauvet izena jartzen du 1764.eko ekainaren 12az geroztik, ezkondu zen egunaz geroztik alegia. Inprenta berria ireki zuen Karmeldarren elizaren aldamenean, Tanneries kalean.

1791.eko urriaren 3an hil zen eta bere seme Pierre-Armand-Joseph-Pascalek, 1776.eko uztailaren 29an jaioa, hartzen du bere tokia.

1777. urteko inprimatzaileen Estatu orokorrean Baionan bi inprimatzaile daudela esaten da, Paul Fauvet eta Pierre Fauvet.

Pierre Fauvet edo Fauvet gaztea, eliz barrutiko inprimatzailea, ez dirudi lan gehiegitan zebilenik. 1781.eko apirilaren 22an hil zen. Bere etxea, une batez, bere anaia Paulek zuzendua da, Pierreren tokia bere seme Pierre-Hyacinthe hartzen duen arte.

Honetan ere Jean Fauveten argitarapeneko bertso sorta berri berberak. 106. orrialdetik aurrera (bigarren ataletik aurrera, alegia) letraren neurria txikiagoa da (20 lerro honaino; aurrerrantzean 25. Beti ere, izenbururik ez dagoen lerroez mintzo gara; orrialde osoan testu normala).

Argitarapen honen bi ale desberdinen fotokopiak ditugu, Urkixo liburutegian eta Chicagoko Newberry Library-n lortuak. Bi aleak konparatuta, hau izan da alde gutxiena aurkitu dugun edizioa:

Noelac liburuaren 15i argitarapena	
Chicagoko alea	Urkixoko alea
→ 30. or.: 13 orrialde zenbakia	→ 30 orrialde zenbakia
→ 128. or.:	→ Cu deia
→ 141. or.: Orrialde zenbakia falta	→ 141 orrialde zenbakia
→ 197. or.: Orrialde zenbakia falta	→ 197 orrialde zenbakia
→ 215. or.: 215 orrialde zenbakia	→ Orrialde zenbakia falta
→ 227. or.: Pij zeinadura	→ Pii zeinadura

Vinsonek dioenez, Paul Fauvetek 1700-1736 urte bitartean inprimatu zuen eta 15f, 15h, 15i argitarapenak garai horretakoak dira; ez du uste bere iloba Paul Fauvetek inprimatuak daitezkeenik. Honek 1760-1791 urte bitartean inprimatu zuen, baina bere ezkontzaz geroztik (1764.eko ekainaz geroztik) Fauvet-Duhart edo Duhart-Fauvet sinatzen du eta ez, gehiagotan, P. Fauvet. Baliteke Vinsonen ustez hiru hauetakoren bat Pierre Fauvet, Paul Fauvet-Duharten osaba eta Jean Fauveten anaiarena izatea. Honek 1757-1781 urte bitartean izan zuen bere moldiztegia.

Argi utzi nahi genuen lan honen sarreran Julien Vinson izango genuela bibliografiari eskainitako atalaren ardatz eta aurretikako zein ondorengo lanek aukeraketa hori baieztatu eta sendotu besterik ez dute egin. Ikusi dugu Aita Larramendi, Pierquin de Gembloux, Francisque Michel eta L. L. Bonaparte Printzeari bidalitako eskuizkribuak ez digutela, inondik ere, *Noelac*-en edizio guztien berri eman, eta helburura hurreratu den lehena Julien Vinson izan dela. Bere ondorengo Sorarrain eta Louis Desgravesek,<sup>24</sup> ordea, ez digute bere lanean agertzen ez denik erakusten.

---

<sup>24</sup> Honen bi lan aipatu nahi genituzke. «Les livres imprimés à Bayonne au XVII<sup>e</sup> siècle», lehena, eta «Les livres imprimés à Bayonne au XVIII<sup>e</sup> siècle», bigarrena. Bi izenburuok ikusita, gogoz ekin genion irakurketari baina, tamalez, ez genuen ezer berririk aurkitu. Agian, ez dena bilatzen ihardun dugulako. Esaterako, aipatu lehen lanean 1972: 382) Vinsonen bibliografian agertzen diren 15c, 15d eta 15e argitarapenen berri ematen zaigu, 1697.ekoa lehena eta 1699.ekoak hurrengo biak. Argi uzten du berak ere «d'après Vinson» egin dituela bere aipamenak. Izan ere, transkribaketa hutsen bat salbu, hitzez hitz dagokio Vinsonen azalpenei. «Les livres imprimés à Bayonne au XVIII<sup>e</sup> siècle» lantxoan (1975: 176), XVIII. mendean Bayonan agertu ziren *Noelac*-en edizioen berri aurkituko dugu (Vinsonen 15f, 15g, 15h eta 15i). Kasu honetan ere, Vinsonen lanetik hitzez hitz hartutako datuak.

### 3.1.2. Zeharkako tradizioa<sup>25</sup>

Ez gara luzaz mintzatuko zeharkako tradizioz guregana heldu diren *Noelac*en atalez.<sup>26</sup> Zerrenda ditzagun, besterik ezean, aurkitu ditugun *Noelac*en atalak edo bertso sortak:

- Aita Akesoloren *Noelac*en edizioa, 1907.ean Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A.k plazaratua.
- Aita Larramendiren *Artea*. Bi bertso sorta: “Innocénten Amen dolorearén gañean Noela” eta “Nolá bätzuc hurrequin ihessi aviatú cirén”.
- *Euskal-Erria* aldizkaria, 1886. Aurreko bertso sorta berbera.
- *Gure Herria*, 1925. “Artzainak Bethleemen” izenburua duen bertso sorta bat argitaratu zen. Sortaren amaieran *Noelac*en 1760.eko argitarapenetik hartuak direla dio, 67, 68, 69. orrialdeetatik, ortografia gaurkotuz ezarriak.

Oso interesgarria iruditu zaigu ohar hau, ez baikenekien ikusi ditugun *Noelac*-en argitarapenetatik bat 1760. urtean koka genezakeenik.

Argitarapen honek 15i ezaugarria du Vinsonen sailkapenean. Ikusi dugu, *Noelac*-en edizio desberdinen aipamen bibliografikoak egin ditugunean, Vinsonen ustez, 15f, 15h eta 15i argitarapenak 1700-1736 urte bitartean imprimatu zuen Paul Fauvetenak direla, eta ez bere iloba Paul (1760-1791) edo Pierre Fauvetenak (1757-1781).

Baina *Gure Herria* aldizkariaren arabera, edizio hau 1760. urtekoa da. Oso datu interesgarria, aurrerantzean kontuan izan beharrekoa.

- *Gure Herria*, 1926b. Ikusi ditugun Aita Larramendiren bertsoak.
- *Gure Herria*, 1926a. Bi noela: “Erregueen adorationearen gañean trufaniacots” eta “Innocenten massacraren gañean, Innocenten bestetacotz”.
- *Gure Herria*, 1926c. “Andre Dena Mariaren Eliçan sartcearen gañean Noela Candeleroctz” eta “Jesus Haurra templuan aurkhitcearen gañean Noela”.
- *Egan*, 1995. “Bethleen’en ostaturik ezin aurkhituaren gañean noela”.
- *Gure Herria*, 1929b. P. Argaiñaratsen akrostikoa.
- P. Lafitteren *Euscaldunen lorategia*-n (1931: 26-27) agertzen diren bertsoak.
- Aita Onaindiaren *Mila euskal-olerki eder*-en (1954: 199-201) agertzen direnak.
- Karmelo Etxenagusiak bere *Iparraldeko Euskal Idazleak* liburuan (1981: 61-62) biltzen dituenak.

---

<sup>25</sup> Zeharkako tradizioa diogunean, Alberto Blecuaren hitzak ditugu gogoan (1988, 38): «Un texto ha podido llegar hasta nosotros a través de uno o más testimonios, en tradición directa o en tradición indirecta, es decir en citas de otros autores, fragmentos, en antologías, en refundiciones, en traducciones, etc. y en forma manuscrita o impresa, o en ambas a la vez».

<sup>26</sup> Ikus beza, nahi duenak, honetarako Atutxa 1999, *Noelac*en zeharkako tradizioari eskainitako atala. Lortu ditugun emaitzak ere ez dira adierazkorrak, aipatzen dugun kasu batean salbu.

### 3.2. Lekukotasun desberdinen biluzketa<sup>27</sup>

#### 3.2.1. Oinarrizko testuaren aukeraketa

Lan honetan zehar aipatu dugunez, *Noelac*-en bederatzi argitarapen desberdin lortu ditugu, oinarrizko testuaren aukeraketaren orduan izan dugularik non aukeratu.

Alde honetatik, argi ikusten da lau hildo desberdin bereiz ditzakegula:

##### 3.2.1.1. 15b, 15c, 15c-1, 15d, 15f eta 15h argitarapenak.

Talde honetako argitarapenak 22 lerro<sup>28</sup> dituzte orrialdeko, orrialde zenbaki eta zeinadura eta deiak kontuan izan gabe. Talde honetako edizio guztiak, haatik, ez datoz erabat bat. 15b-tik 15c, 15c-1, 15d eta 15f argitarapenetara, azken hiru orrialdeetan (238-240),<sup>29</sup> lerro bateko aldea dago (azken lau hauetan zazpi lerro ditugu 240. orrialdean; hartan, sei).

15h argitarapenean, berriz, 210. orrialderaino, 22 lerro ditugu. Hemendik aurrera (liburuaren laugarren ataletik aurrera, alegia), 27 lerro izango ditu argitarapen honek, letra tipoa txikiagoa delarik.

15b, 15c, 15c-1, 15d eta 15f argitarapenetan, 214. orrialdean hasten da laugarren atala; 15h-k, bada, hiru orrialde irabazi ditu liburuko lehen hiru ataletan. Alde hau honako arrazoi hauengatik gertatzen da, izenburu, ahapaldi, e.a.-en artean dauden tartekak edo zuriuneak nabarmenago direlako argitarapen haietan.

15f argitarapenak, lan honetan zehar aipatu bezala, aurrekoek ez dituzten bertso berri eta desberdinak ditu amaieran (241-250 orrialdeak). 15h argitarapenak ere bertso berriak eta desberdinak ditu, baina ez 15f-an agertzen direnak, 15g eta 15i-an ditugunak baizik.

##### 3.2.1.2. 15g argitarapena.

Dakigunez, hau da itxuraz neurri desberdina duen argitarapen bakarra (in-12 itxurakoa, J. Vinsonen arabera), eta nabari da desberdintasun hau orrialdeen ezarketan ere, edizio honek 26 lerro baititu orrialdeko; lau lerroko aldea, beraz, a) taldeko argitarapenen orrialdeekin.

##### 3.2.1.3. 15e argitarapena.

---

<sup>27</sup> Joseba Lakarrari jarraiki (1988b: 124), zera aipa dezakegu: «Benetako edizio kritikoa egiteko lekukotasun guztien biluzketa nahita nahiezkoa du argitaratzaileak, eta hori aurretik edizio kritiko anitz izan arren, usu ez da lan guzti horrekin gehiegi aurreratzen baina oinarrizko araua dugu.»

<sup>28</sup> Inolako izenbururik, kapitulurik, plekarik edo bestelakorik agertzen ez diren orrialdeak dira kontuan hartu direnak lerroak zenbatzeko. Testu normalez osotutako lerroak, beraz.

<sup>29</sup> Kontuan izan behar dugu 15b argitarapena ez dela 240. orrialdean amaitzen, jarraian aurkibidea baitator 251. orrialderaino.



Hau ere desberdina da aurrekoekin konparatuz gero. Honek 21 lerro ditu orrialdeko, kaxa a) multzokoena baino laburtxuagoa delarik (haiek 91 mm. altuerakoa dute 22 lerrotarako; honek, 89 mm.-koa 21 lerrotarako).

Argitarapen honetan ere, 15h-an bezala, letra tipoa aldatu egiten zaigu. Honetan, berriz, liburuaren laugarren ataletik aurrera, 220. orrialdetik aurrera alegia (hemendik aurrera, 27 lerro ditugu, letra tipoa askozaz txikiagoa delarik).

#### 3.2.1.4. 15i argitarapena.

Hau ere desberdina da aurrekoekin konparatzen badugu. Honek 20 lerro ditu orrialdeko, kaxa a) multzokoena baino laburragoa delarik (haiek 91 mm. altuerakoa dute 22 lerrotarako; honek, 82 mm.-koa 20 lerrotarako).

Argitarapen honetan ere, 15h-an bezala, letra tipoa aldatu egiten zaigu. Honetan, berriz, liburuaren bigarren ataletik aurrera, 106. orrialdetik aurrera alegia (hemendik aurrera, 25 lerro ditugu, letra tipoa askozaz txikiagoa delarik). Edizio honen amaieran, 15g eta 15h edizioetan ditugun bertso berriak ditugu.

*Noelac*-en edizio desberdinen orrialdeen ezarketaren aldetiko ñabardurak azaldu ondoren, oinarrizko testuaren aukeraketa egitea dagokigu. Aurrerantzean aipatuko ditugun orrialde eta bertso zenbakiak 15b argitarapenari dagozkio (15b diogunean —emandako salbuespenak salbuespen—, 15c, 15c-1, 15d eta 15f ere esan nahi dugu).

#### 3.2.2. Orrialde eta lerroen zenbakikuntza

Sistema bakarra erabili dugu liburuaren orrialdeak eta lerroak zenbatzeko. Honetarako, hiru alde desberdinetan banatu ditugu lerroak:

- Bertsoak
- Hitz-lauz idatzirikoak
- Izenburu eta bestelakoak

Bertsoei zenbaki arabikoak egokitu zaizkie; hitz-lauz idatziriko lerro guztiei ere zenbaki arabikoak egokitu zaizkie, bakoitzaren amaieran lerroa adierazi nahi duen L bat itsatsi dugularik (1L, 2L, 3L... nL); aralde, buru, atal, bertso sorta, e.a.-en izenburuei, berriz, IZ1, IZ2, IZ3... Izn egokitu zaie.

Bertso eta hitz-lauz idatzirikoen zenbakikuntza lehen orrialdean hasi eta amaierarainokoa izan da; izenburuei dagokienez, berriz, orrialde bakoitzean berriro hasi dugu zenbaketa.

*Noelac* liburuan 4.542 bertso eta hitz-lauz idatziriko 83L lerro zenbatu ditugu. Azken haiek onespén, baimen, Joan Ihartiusen epigrama eta liburuaren parteen azalpenari dagozkio. Tarteka-marteka, zenbait izenburu ere zenbatu ahal izan dugu.

#### 3.2.3. Aldaeren antolaketa

Liburuaren lekukotasun desberdinen konparaketak milaka aldaera eragin du. Ezin genituen, haatik, aldaerok inolako antolaketarik gabe eman, orrialde bakoitzean atera ahala zerrenda batean, elkarren segidan, inolako ordenu eta sistematizaziorik gabe. Sistematizazio horren bidean, zenbait iturritan edan nahi izan dugu: batetik, A. Blecuak bere *Manual*-ean erakusten diguna; bestetik, A. Roncagliarena (*Principi*, 1975: 96-140) eta azkenik, neurri txikiago batean, Joanes Leizarragaren *Testamentu berria*-ren edizio kritikoa prestatzerakoan, Th. Linschman eta H. Schuchardt-ek egin duten sailkapena. Azken hau «Sobre el modo de disponer la reimpression, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga» izenburupean jarri duten sarreran aurki genezake (Leizarraga, 1990: 148-180).

### 3.2.3.1. Jarraitutako metodologia

Blecu, Roncaglia eta Schuchardten hutsen banaketek zera erakusten digute, testu baten transmisio prozesuan (kopiatzea zein kajistaren konposaketa lana izan), lau sail nagusi behintzat egin daitezkeela:

- gehitzearen ondorio diren aldaerak
- ezabatzearen ondorioz gertatu direnak
- leku aldatzearen ondorio direnak
- ordezkatzek gertatzen direnak

Bestalde, kontu garrantzitsu batez ohartu behar dugu: askotan, argitarapen batetik bestera gertatzen diren aldaketak editore edo inpresorearen (ez dut uste kajistaren ausartkeria horrenbestereinokoa izan zitekeenik) parte hartze zuzenaren ondorioz gertatzen direla eta nahita eginikoak direla, aldaketa kontzienteen aurrean aurkitzen garela. Hau argi ikus dezakegu *Eliçara erabiltececo liburuaren* bigarren edizioan, 1666.ekoan. Ezin dira autore aldaera bezala hartu, ordurako Joanes Etxeberri hila dela suposatu behar dugulako; *editore aldaerak* edo deitu beharko genituzke, beraz. Eta honetan ere bi hildo bereizi beharko lirateke:

- Grafiari dagozkion parte hartzeak
- Bestelakoak

Lehenei dagokienez, kontuan izan behar dugu euskararen tradizio idatziaren lehen pausuak ematen ari direla eta ez dagoela grafia homogeneousan; are, askotan liburuetan agertzen zaigun grafia inpresorearena izaten da eta ez idazleak inposatu duena.

Julien Vinsonek —Axularren *Guero*-ren lehen bi edizioen konparaketaz diharduela— honako ohar hauek ematen ditu (1891-8: 88-89):

Dans la première édition, comme je l'ai déjà dit, beaucoup de ç et n tilde sont remplacés par des e à queue et par des fi partiellement rognés, ce qui ne se représente pas dans la seconde édition; des K pet. cap. tiennent la place de K grandes capitales; la forme de certaines lettres est plus archaïque; on y trouve même (p. 337) l'abréviation *dimittim*<sup>9</sup> pour *dimittimus* (rien de pareil ne s'observe dans la seconde édition; enfin les a, e, i, o, u tilde pour *an*, *en*, *in*, *on*, *un*, sont infiniment plus fréquents. Ces indices d'un archaïsme relatif sont aggravés encore par l'usage constant de I et V pour J et U capitales régulièrement employés dans la seconde édition, ainsi que par la confusion des i et des j, des v et des u bas-de-casse dans la seconde édition; pour celle-ci, on a adopté partout l'orthographe moderne dans la citations latines: *nova*, *jus*, *usque*, *deliciis* par exemple correspondent

aux *noua, ius, vsque, delicijs* de la première édition; mais on n'a presque rien changé sous ce rapport au texte basque que l'imprimeur et ses ouvriers ne comprenaient probablement pas. Or, dans les livres imprimés par J. Mongiron-Millanges, par ses successeurs et par ses confrères de la région, y compris les Fauvet de Bayonne, cette réforme orthographique ne fut complètement adoptée que tout à la fin du XVII<sup>e</sup> siècle ou au commencement du XVIII<sup>e</sup>.

Grafia aldaketez landako beste aldaketa kontzienteak ere agertzen dira *Eliçara* liburuan, batez ere lehen atalean (63 orrialde), denbora eta aro kontuez ari zaigunean (den denak ditugu azalduak zazpigarren kapituluan). Horiezaz aparte, hona hiru nabarmen:

216. orrialdean

- |    |  |    |  |
|----|--|----|--|
| b) | Iaincoac bada gure bihotçac eta gorputçac guidatçala, Iaincoaren femearen, eta Christorē amorioan, eta iau-na çuc içaçu gutças mifericordia. | c) | Iaincoac bada gure bihotçac eta gorputçac guida detçala, Iaincoaren onheriztean, eta Christoren patientian, çuc bada iauna gaitutçun vrricari. |
|----|--|----|--|

316. orrialdean

- |    |   |    |   |
|----|---|----|---|
| b) | Ceren dudan çure legue Saindua mezpreçatu , Eta ceren eguin dudan Haren contra bekhatu. | c) | Ceren dudan çure legue Saindua mezpreçatu , Eta haren contra eguin Nauarbenqui bekhatu. |
|----|---|----|---|

397. orrialdean

- |    |  |    |   |
|----|--|----|---|
| b) | Badaquigu galdeguiten Hari diotçotçunac,, Aithortuac Bereala ontaffunac. | c) | Badaquigu galdeguiten Hari diotçotçunac , Berehala aithortuac çaiquitçula ontaffunac. |
|----|--|----|---|

Honelako eta bestelako adibide guztiak 3. eranskinean jarri ditugu.

Argi dago, bada, aldaketa kontzienteen atal berezi bat izan beharko genukeela, bertan grafia kontuak eta bestelakoak agertaraziz.

Hirugarren atal nagusi bat inprentak berak izan zitzakeen arazoei eskainia legoke. Atal honetan sartuko genuke, adibidez, C-Ç aldaeren kontua. Schuchardtek ere guk geuk izan dugun arazo berbera izan zuen eta Leizarragaren *Testamentu berria*-n (1982: 141). «A esto se añade también la Ç, parcialmente equivalente, y por tanto Leizarraga no la incluye en ese lugar. Esta Ç no se encuentra en todos los tipos de letra, y por eso es sustituida o bien por la misma Ç en otro tipo de letra, o bien por la C, que es lo normal, como en iniciales, en títulos, en redonda pequeña.» dio. Askotan gertatu zaigu guri ere edizio batean Ç eta beste batean C edo ç aurkitzea.

Aipagarria da, bestalde, puntuazio markei buruzko arazo berezi bat. Hau da, Schuchardten hitzetan, kontu berezi hori (Leizarraga, 1982: 141):

Por lo que hace a los signos de puntuación, no sólo, como ahora, el punto, sino también los dos puntos, el signo de interrogación y la coma acostumbran a ir pegados justo a la palabra precedente, incluso ante un espacio de línea vacío. No rara vez aparecen apretados entre palabras. Por otra parte, de cuando en cuando están muy espaciados.

Hau ere gertatu zaigunez, atal honetan aztertuko ditugu honen ondorioz sortutako aldaerak.

Kalte materialek ere beraien tartetxea izango dute.

Aipatu ditugun ohar guztiok kontuan izanik, honako sistema hau proposatzen da Joanes Etxeberriren liburu honen edizio desberdinek eskaini dizkiguten aldaerak sailkatzeko:

1) Aldaketa kontzienteak. Editore edo inpresorearen parte-hartze zuzenaren ondorioz gertatutako aldaerak (AK ezaugarriaz aipatuko ditugunak aurrerantzean).

1.1. Erreforma ortografikoari dagozkion aldaerak (EO ezaugarria).

DAR (dardarkarien taldea)

RBB (r bakuna/bikuna ematen da aldaera desberdinetan)

DIP (diptongoen taldea)

AI, EI, OI, UI diptongoak

EK (erdikontsonanteen taldea)

DAK (diptongoa apurtzen duen kontsonantea bai/ez)

JIK (j-ren ingurune fonetikoa)

G/GU (g/gu taldea)

GUA, GUO

LEH (leherkarien taldea)

SUD (sudurkarien taldea)

TXA (txistukari afrikatuen taldea)

TXI (txistukari frikarien taldea)

URK (urkarien taldea)

U/V

1.2. Bestelakoak (BES ezaugarria).

Mm (maiuskula/minuskula taldea)

2) Transmisio prozesuan gertatutako hutsak. Gehienetan, kajistari egotz lekizkiokeen hutsen ondoriozko aldaketak (HU ezaugarriaz ezagutuko ditugunak).

2.1. Argitarapen batetik bestera, zerbaiten gehitzea izan da: *adiectio* (ADI ezaugarria).

AHS (amaieran hizkia soberan dago aldaera batean)

BHS (barnean hizkia soberan dago)

HHS (hasieran hizkia soberan dago)

HOS (hitz osoa dago soberan)

2.2. Argitarapen batetik bestera, zerbait ezabatu da: *detractatio* (DET ezaugarria).

AHF (amaieran hizkia falta da aldaera batean)  
BHF (barnean hizkia falta da)  
HHF (hasieran hizkia falta da)  
HOF (hitz osoa falta da)  
LOF (lerro osoa falta)

2.3. Argitarapen batetik bestera, leku aldatze bat dugu: *transmutatio* (TRA ezaugarria).

META (hizkien arteko metatesia)  
HBB (hizkien arteko metatesia)  
LBB (lerroen arteko metatesia)

2.4. Argitarapen batetik bestera, ordezkatzeko bat gertatzen da: *inmutatio* (INM ezaugarria).

BER (Bersalita/maiuskula-minuskula taldea)  
HBB (hizki bat edo beste ageri dira aldaera desberdinetan)  
HTE (hitza bera txarto ebakia ageri da aldaeraren batean)  
AAB (aditz partizipioa/laguntzailea banatuak bai/ez)  
HAB (hitza/atzizkia banatuak bai/ez)  
HAH (hitzen arteko hutsunea bai/ez)  
HBB (hitza bera banatua argertzen da)

2.5. Puntuazio markak (PM ezaugarria).

BPAH (bi puntu aurrean hutsunea bai/ez)  
BPOH (bi puntu ondoren hutsunea bai/ez)  
BPBE (bi puntu bai/ez)  
DIERE (aldaeren hizkiren batean dieresia bai/ez)  
GIAH (galdera ikurraren aurrean hutsunea bai/ez)  
GIHI (galdera ikurra/harridura ikurra)  
GIBE (galdera ikurra bai/ez)  
HIBE (harridura ikurra bai/ez)  
KAH (aldaeraren batean hutsunea koma aurrean)  
KBE (koma bai/ez)  
KBP (koma/bi puntu)  
KGI (koma/galdera ikurra)  
KHI (koma/harridura ikurra)  
KOH (koma ondoren hutsunea bai/ez)  
KPK (koma/puntu eta koma)  
K- (koma/marratxo)  
PAH (puntu aurrean hutsunea bai/ez)  
PHI (puntu/harridura ikurra)  
PBB (puntu bat/bi)  
PBE (puntu agertzen da bai/ez)  
PBP (puntu/bi puntu)

PGI (puntua/galdera ikurra)  
PK (puntua/koma)  
PKBP (puntua eta koma/bi puntu)  
PKGI (puntua eta koma/galdera ikurra)  
POH (puntu ondoren hutsunea bai/ez)  
PPK (puntua/puntu eta koma)  
-BE (marratxoa bai/ez)

### 3) Inprenta arazoak (IA ezaugarria).

HM (hitz bat mugitu egin da bere berezko tokitik)  
LBB (kaxa luzeago/laburrago aukeratzearen ondorioz, hitz bat lerro bat/bitana)  
M/VIR ('m' hizkiaren ordez *vírgula* jarri denean)  
N/VIR ('n' hizkiaren ordez *vírgula* jarri denean)  
OBB (orrialde batean/bestean daude zenbait bertso)  
OF (orrialdeak falta dira)  
TIP (tipo desberdinak edizio batetik bestera)  
ZED (Ç/C/ç dugu edizio desberdinetan)

### 4) Kalte materialak (KM ezaugarria)

HF (hizki bat falta da aldaeraren batean)  
AHF (amaieran hizkia falta da)  
BHF (hitz barnean falta da hizkia)  
HHF (hasieran hizkia falta da)

Azkenik, lortu ditugun emaitzak ematea genuke.<sup>30</sup>

Bestalde, aintzat hartu beharreko kontu batez ohartu nahi dugu irakurlea; testuaren toki jakin batean, lekukotasunek irakurketa desberdinak dituztela: A eta honen aurrean BDC, edo AB eta CD, edo ABC eta D, e.a. Noski, obra baten bi lekukotasun baizik ez badugu, kontua oso sinplea da, A izango dugu Bren aurrean, eta akabo. Arazoa, zailtasunak, harretaz ibili beharrak, lekukotasun asko dugunean sortzen dira.

Joanes Etxeberriren obren kasuan, bi hildoak ematen dira: *Manual devotioezcoa* eta *Eliçara erabiltceco liburua* obren bi lekukotasun heldu dira gure eskuetara, 1627 eta 1669.ekoak hartan eta 1665 eta 1666.ekoak honetan. *Noelac* obran, aldiz, bederatzi lekukotasun desberdin. Lehen bi obren lekukotasun desberdinek eragin dituzten aldaeren zerrendak ezin dira zehatzago bihurtu alde honetatik; bai, ordea, *Noelacen* lekukotasunek eragin dutena. Eta horixe da, hain zuzen ere, jarraiko orrialdeotan aurkezten duguna. Aldaeren zerrenda hura hartu eta irakurketa desberdinak taldeka banatu ditugu: toki jakin batzuetan B lekukotasunaren irakurketa gainontzeko guztien aurrean agertzen bada, aldaera guzti horiek multzo batean; GHI lekukotasunenak gainontzekoen aurrean baditugu, beste

---

<sup>30</sup> Etxeberriren hiru liburu inprimatuaren lekukotasun desberdinen biluzketak eragindako aldaeren zerrenden berri nahi duenak jo beza *Joannes Etcheberri Ziburukoa. Obraren berrirakurketa bibliografikoa eta testu kritika* lanera (Atutxa 1999).

multzo bat, eta horrela konbinaketa guztiak agortuz.

Zeregin honek jarraiko ataleko lekukotasun desberdinen azterketa eta aukeraketa, batetik, eta stemmaren eraikuntza, bestetik, erraztuko dizkigu.

### 3.3. *Stemmatica*

Testu luze baten kopian barrena gertatzen diren eratorpen eta loturen harremanen erakuspen (errepresentazio) eskematikoa izendatzen dugu *stemma* hitzaz: harremanok kopiaren beraren azterketaren bidez edo bere komuntadura eta ezberdintasunetan ezagut genitzake. *Stemma* era ziur batean hala ezagututako hutsak oinarri hartuta berreraikitzen da, eta gero eskuskribu desberdinetan aldaera adiaforak -hau da, irakurketa desberdinak baina maila berean onegarriak direnak- kontrajartzen direnean, hautaketa bideratu eta justifikatzeko erabiliko da. Funtzio praktiko honez gain, *stemmak* esangura historikoa du: era erraztu batez, testua transmititu den gorabehera historikoaren erro esentziala erakusten baitu.

Edozein istripu materialen (lohidura, zulo, ebaki edo antzekoak) ondorioz, testu atal bat irakurgaitz izan bada, ale honen, eta honenak bakarrik, eratorri diren kopia guztiek dagokien hutsunea (edo hutsuneari dagokion tokian jarri den berrikuntza konpontzailea) izango dute. Hutsune hauen presentzia zilegiro jaso izan daiteke ahaideria froga bezala, hau da, materialki gertatu den istripuak eragindako hutsune hori jasan duen ale bakarrari dagokionez, hutsune berdina agertzen den kopia guztien eratorpen froga bezala. Lotura honek, noski, bere balioa galduko du jatorrizko istripuko alea gorde ez den heinean: baliteke istripua isladatzen den kopia guztietako iturri beraren existentzia momentu batean materialki frogatua ez etortzea, baina arrazonamenduz postulatu beharko da.

Arrazonamendu berdintsua errepikatu ahalko da tradizioan zehar gertatutako edozein ustelkeriarako, mekanikoa ez bada ere. Hau izaera probabilistikodun aitzinasmo batean oinarritzen da, estadistikoki froga daitekeena: hipotesirik ekonomikoena izaten da, oro har, frogagarriena. Izan ere, kalte batek testu berbereko kopia desberdinetako leku berberean erasotzeko probabilitatea minimoa da. Alderantziz, zenbat eta testu berbereko kopia gehiagok ustelkeria berbera erakutsi toki jakin batean, orduan eta arrazonamendu handiagoz azalduko da oinarrizko ale bereko kopien ondorengotza bateratua (amankomuna), eta arrazoizko azalpen hau zenbat eta hala beharrezko kointzidentzia ez dela egitxurakoagoa izan, orduan eta frogagarriago gertatuko da.

Argi dago, berez, irakurketa batean ematen den kopia bi edo gehiagoren komuntadurak beste baten aurrean ez dituela ahaideria interferentziak baimentzen irakurketa hura okerrekoa dela erakutsi bitartean. Egia da, autore aldaeretan salbu, bi irakurketa (edo gehiago) alternatiboren artean bat bakarrik izan daiteela benetakoa. Baina berez ulergarria den edozein irakurketa egiazkotzat uste ukan dezakegu eta, ondorioz, lehiakideen parean, berreraiketa genealogikorako baliogabekotzat har dezakegu faltsua dela identifikatu arte. Aldaera adiaforak erabiltezinak dira *stemma*ren berreraiketarako.

Noski, hutsa zenbat eta hutsalagoa izan, orduan eta handiagoa izango da huts amankomun bat iturri amankomun baten menpean egoteko probabilitatea, orduan eta

ziurragoa ahaideria lotura. Ahaideria frogatzeko baliogarritzat hartua izan dadin, kointzidentzia poligenetiko baten hipotesia arrazonamenduz ezabatzen uzteko besteko izaerakoa izan beharko du huts batek. Bi eskuskribu edo gehiagoren ahaideria baieztatzeko, nahikoa da beraien artean gutxienez huts amankomun baten presentzia egiaztatzea.

Bitartean, noski, kopia bi edo gehiagorekiko huts amankomunak zenbat eta ugariago izan, orduan eta indartuago gertatuko da ahaideria lotura objektibo baten probabilitatea. Huts hutsal batean eman daitekeen kointzidentzia ezin daiteke teorikoki gertagaitzat aldarrikatu, erabat gertagaitza bada ere. Eraiketa *stemmatiko* baten sendartasuna, bada, testu baten kopia desberdinak «familiatan» biltzen lagunduko diguten hutsen pisua eta kopuruaren araberrakoa izango da.

Huts baten presentzia ezagutzea, huts horren pisua adierazgarri bezala baloratzea, judizio egintzak dira, interpretazioari hertsiki lotuak. Hitz batean, *stemmatika* ere interpretazioan oinarritzen da, edozein operazio filologikotan une esentzial ezin besteko bezala baieztatzen delarik. *Stemmak* ziurtasun matematikoa ematen dio zenbait hautaketari (aldaera adiaforen artean), baina ezin da berreraiki kontsidero ez matematikoak alde batera utzirik.

### 3.3.1. Aldaerak

Aldaeren azterketarekin lekukotasunen jatorria zehaztu nahi da. Honetarako, metodo logiko bakarra honakoa da, huts amankomunak baizik erabiltzen ez dituen lekukotasunen jatorria zehazteko.

#### 3.3.1.1. Huts amankomunak

Derragun, laburbilduz, lekukotasunen jatorria zehazteko, erizpide eraginkor bakarra huts amankomunean oinarritzen dena dela. Argi dago huts batean batera datozen bi lekukotasun, azken instantzian huts hori zegoen eredu amankomun batera joango direla.


Izan ere, testu kritikaren operaziorik delikatuena huts amankomunaren ezarrera zuzenean datza; eta kontu handia izan behar da bi lekukotasun edo gehiagok egin dezaketen huts guztiak ez baitoaz agertzen ziren eredura. Bi kopista edo gehiago huts berean, hala beharrez, batera etor daitezke, kopia operazio beraren hutsak direlako: *haplografia*, *ditografia*, berdinen arteko jauzia, *lectio facillior*, huts paleografikoa, e.a. Kasu honetan, bada, ustegabeko huts lokabeak dira, huts poligenetikoak, jatorria zehazteko balio ez dutenak. Huts amankomuna, bada, bi lekukotasun edo gehiagok beraiengandik at ezin egin izan dutena da. Komenigarria da, haatik, huts amankomun bateratzaile eta huts amankomun banatzaileak desberdintzea.

#### 3.3.1.1.1. Huts bateratzaileak

Huts bateratzaileak, bi kopia edo gehiagorekiko amankomunak izanik (eta kopista desberdinek bata besteagandik at egitea gertagaitzat edukitzeko izaerakoak), kopia hauen arteko konexio frogaz bezala zilegiro hartuak izateko aukera ematen duten hutsak dira. Konexioa era desberdinetan azal daiteke. Kasurik sinpleenean, huts bateratzaileez



elkartutako bi lekukotasun A eta Btik, hiru hipotesi dira, izan, posibleak: I) B Atik eratorria dela, II) A Btik eratorria dela, III) A eta B, bi lekukotasunak, x iturri amankomun batetik eratorriak direla; honela jarraiko oinarritzko *stemmak* dira posible:



B Atik eratorria dela baieztatu ahal izateko zera gertatu beharko da, Bk Ak dituen huts guztiak aurkezten dituela eta, gainera, bere berezko hutsen bat. Era beretsuan, A Btik eratorria dela baieztatu ahal izateko Ak Btik huts guztiak aurkeztu beharko ditu eta, gainera, bere berezko hutsen bat. Lekukotasun bat bestearen eratorria dela baztertu ahal izateko zera gertatuko da, Ak Bn ez dauden hutsak aurkezten dituela eta, ordairizka, Bk An ez daudenak: huts amankomunez landa, kopia bakoitzak bere berezko hutsak aurkezten dituela.

### 3.3.1.1.2. Huts banatzaileak

Huts banatzaileak, kopia batean bai eta bestean agertzen ez direlarik, lehenaren besteekiko independentzia frogatzen uzten diguten hutsak dira. Huts bati balio banatzailea iraxteki ahal izateko baldintza bat honakoa da, aieruz errazki zuzendua ez izateko besteko izaerakoa izatea eta, bestalde, bere ausentziak agertzen den lekukotasunetatik independentea dela erakutsi behar duen lekukotasunetan aieru bidez ezabatua izateko susmorik agertu ezina.

Argi dago baldintza hau eta huts bateratzaileen balioa zehazten zuen hura desberdinak direla. Huts bateratzaileek konexio harremana erakusten dute; garrantzitsua dena zera da, lekukotasun bat baino gehiagotan inolako lokarrik gabe sortu direla suposatu ahal izatekotan, beraiek hain errazki ekoizgarriak ez izatea. Huts banatzaileek, ordea, menpekotasun harremana baztertzen dute: garrantzitsua dena zera da, bere iturrian aurkituko lukeen lekukotasun batetatik aieruz ezabatua suposatu ahal izatekotan, hain erraz zuzenduak ez izatea. Beraz, zera ulertu behar da, aieruz zuzendu eta ezabatuak izateko erraztasun hori kasuz kasu baloratua izan behar dela, ez bakarrik hutsen funtsezko kalitateari dagokionez, baita aztertzen ari garen lekukotasunen artean igarotako tartean kopisten testu kritika gaitasunari eta kulturaren baldintza orokorreari dagokienez ere: balorazio horrek zera dakar, judizio bikoitza, ulertzekoa eta historikoa, huts bateratzaileak ezagutu eta baliokidetzeko behar direnak baina oraindik delikatuagoa.

Huts bera, beraz, bi ikuspuntuetatik kontsideratua izan daiteke: bateratzaile bezala zenbait eskuskriburi dagokionez eta banatzaile bezala beste batzuri dagokionez. Baina balio baldintza desberdinetarako, huts guztiek, bateratzailetzat kontuan hartzeko dituzten baldintzak izanik ere, ez dituzte, gainera, banatzailetzat hartzekoak izaten, lekukotasun multzo biren artean balio banatzailea onesten zaien hutsei, oro har, dakarren multzoarekiko balio bateratzailea ere ones dakiekeen bitartean. Laburbilduz, hutsalak ez diren hutsak errezago zuzenduak gerta daitezke, zuzentzen zailak diren hutsak hutsalak gerta daitezkeen bitartean.

### 3.3.2. Hutsa *Noelac* liburuan

Etxeberriren liburu inprimatuetan, hau da lekukotasun gehien ezagutu duena eta bertan huts amankomun bateratzaile eta banatzailetzat har genezakeen asko dugu. Aurkeztu eta behar dituzten azalpenez hornituko ditugu:

● **010 orrialdea**      **IZ2 bertso zenbakia**

Stephanus de Hirigoiti Doctor Medicus  
Heriogiti

B  
Gainontzekoak

● **025 orrialdea**      **IZ5 bertso zenbakia**

Apostoluec Iefus Christoz / generalqui erranen / gañean  
Abendocotz Noela  
Abendocotz ∅

B  
Gainontzekoak

● **040 orrialdea**      **0539 bertso zenbakia**

Elizabeth cufiñaren / Egotu cen etchean, /  
Iaun doni Iauni femeaz / Erdi cedin artean.  
Erdi cenean, Virginia / Bihurtu cen etchera,  
Bera ere hurbiltcen cen / Erditceco epphera  
∅

B  
Gainontzekoak

● **064 orrialdea**      **1.016 bertso zenbakia**

Sorthu cen heia charrera / Cirenean hurbilldu,  
Errespetu handiz ciren / Berehala ichildu

B  
CC1DEF  
Berchela  
Bercela  
GHI

B lekukotasunean 'e' horrek oso finak ditu marrak eta posiblea da C lekukotasunaren konposatzaileak 'Berehala' hitzaren bigarren bokalaren ordez 'c' bat irakurri eta, lectio facillior bat dela medio, 'Berchela' konposatu izana. Argi dago, gero, GHI-k 'Berchela' horretatik 'Bercela' zuzentzen dutela. Adibide askotan gertatzen da kontu bera, aipatu dugunez, huts bera bi ikuspuntutatik kontsideratua izan daitekeela, bateratzaile bezala edizio batzuri dagokionez eta banatzaile bezala beste batzuri dagokionez. Hemen, esaterako, 'Berchela' huts banatzailea da B edizioarekiko baina, aldi berean, bateratzaile bezala kontsidera daiteke CC1DEF aintzat hartzen baditugu.

● **074 orrialdea**      **1.216 bertso zenbakia**

Mirrhas, nic ezagutcen dut / Ecen hillen çarela,  
Nic berriz urreaz, ecen / Çu erreguela çarela

B

erregue  
erreguez

CC1DFGHI  
E

Uste dugu argi dagoela irakurketa zuzena 'erregue' dela. Hau egiaztatzeko bertsoen neurria jarri ahalko genuke aitzakia, baina Etxeberriren bertso gintza, bertsoari neurri egokia eman asmoz, gehiketa ugariz dago hornitua (gogoratu Oihenartek egotzi zizkion *erruak*). Gure ustez errezago azaltzen da kontua beste modu honetara: jarraiko hitzaren bi azken letrek eragindako duplografia arrunt baten aurrean gaude.

● **109 orrialdea**      **IZ2 bertso zenbakia**

Paffione fainduaren gañean / canta afte fainducotz  
fainduan

B  
Gainontzekoak

● **119 orrialdea**      **2.111 bertso zenbakia**

Iuduec eçarri çuten / Sepulturan guardia,  
Difcipuluec gauaz altcha / Etçeçaten lohia.  
alto

B  
Gainontzekoak

● **120 orrialdea**      **2133 bertso zenbakia**

Matutiña gau erditfu / Inguruan hartua,  
Gautiña gau erditfu / Bethi haren hartua,  
Aitaren çuhurtcia, eta / Eguia eçagutua.

B  
Gainontzekoak

Lehen bertsoia da zuzena, hala agertzen baita *Manual devotioenezcoa eta Eliçara* liburuetan ere.

● **161 orrialdea**      **2.943 bertso zenbakia**

O Ianhari indarfua, / Arren ene bicia,  
Hagoan iduqui çaçü / Goça artean gloria  
Gogoan

B  
Gainontzekoak

Jarraiko lerroko lehen bi letren ondorioz, zalantzarik gabe.

● **169 orrialdea**      **3.118 bertso zenbakia**

Onac ioan dire canta / Eta ereĎetan  
errepiqueta  
Gaixtoac berriz marrafca, / Eta auhen triftetan

B  
Gainontzekoak

Argi dago, kasu honetan, lehen irakurketa 'eresietan' dela zuzena eta ez gainontzekoek dakartena. Lino Akesolok (1970: 129) 'errepiquetan' erakusten digu, baina bertsoaren ariak, zentzuak, berak obesten du 'eresietan'. *Orotariko Euskal Hiztegia* (Euskaltzaindia: 1992: 20) ere azaltzen da 'eresi' hitza eta bertan adierazten denez: «Etcheberri de Ziburu lo emplea

con el sentido de 'canción', 'himno'...».

● **180 orrialdea**      **3.321 bertso zenbakia**

B lekukotasuna	Gainontzekoak
Iongoico bakhotcha çure	Iongoico bakhotcha
Cantatcen tut orenac,	Cantatcen tut çure orenac,
Arren entçun tçatçu ceure	Arren entçun tçatçu ceure
Laudorio çucenac.	Laudorio çucenac.

Argi dago bertsoen neurriak B bidea eskatzen duela.

● **185 orrialdea**      **3.416 bertso zenbakia**

Ociralean cinduen / Creatu hegatztiñac	
Eta iguericalari / Arrañac han formatu	B
fortu	Gainontzekoak

● **195 orrialdea**      **3.597 bertso zenbakia**

Gutziz effatu cinen / Obran atheratcera,	
quezchatu	B
Exemplu on emateco / Infidelen artera	Gainontzekoak

● **217 orrialdea**      **4.035 bertso zenbakia**

Virgina ama egotu cen / Çure amaren aldean,	
Haric eta çutçaz vngui / Erdi cedin artean	B
∅	Gainontzekoak

● **230 orrialdea**      **4.317 bertso zenbakia**

Berehala guero çacu / Çar bat cinduen iauntci	
ceure	B
Eta focca pufca batez / Ceure guerrian hertĎ	Gainontzekoak

Hamabost adibideok argi erakusten dute huts banatzaileen aurrean (beti ere egin dugun oharra eginda) gaudela eta B irakurtzen duen bat, bakarra, dela. Gainontzekoek bakar hori irakurri behar izan dute. Hori horrela izan ez balitz, guztietako batek edo zenbaitzuek B zuzenean irakurri izan balute, posiblea zitekeen hamabost *locus criticus* desberdin hauetako batean edo gehiagotan Bren irakurketa berbera agertzea; baina ez, den denak dakartzate irakurketa berberak. Honek argi ematen digu jarraiko bide hau:

B  
|  
?  
|  
Gainontz.

Jarraiko adibideekin, gai izan beharko genuke ? hori zein ediziori dagokion azaltzeko. Edizioak inprimatu ziren urtea kontuan izaki (edo inprenta oinean agertzen den data, behintzat), edizio hori 15c dela esan beharko genuke, 1697. urtean argitaratua. Baina ikusi dugu lan honetan zehar urte horretako bi edizio ditugula, guk 15c eta 15c1 izendatu ditugunak eta kontua zeinek irakurtzen duen zein erabakitzea izango da, Etxeberriren obraren aurkezpena egin dugunean eritziren bat edo beste emana badugu ere.

Jarrai dezagun adibideekin:

● **120 orrialdea**      **2.132 bertso zenbakia**

Gurutcearen cantatu / Gogo ditut orenac,	
Iefus Chrifto, entçuntçatçu / Ene trifte auhenac	
Eta dietçaquidatçu / Barkha neure hobenac,	
Dignequiago detçadan / Aippha haren omenac	B
Banha	CC1DEGHI
Barkha <sup>31</sup>	F

Dirudienez, bada, Fren ondorengoek ez dute F jarraitu, bestela 'Barkha' izan baitzitekeen irakurketa ez 'Banha'.

Argi dago, bestalde, hemen ere huts banatzaile baten aurrean gaudela, B eta jarraiko edizioa banatzen dituen hutsa. Noski, 'Banha' hori huts bateratzailea litzateke CC1DEGHI aintzat hartzen baditugu.

● **134 orrialdea**      **2415 bertso zenbakia**

B lekukotasuna	CD lekukotasunak	C1EFGHI
Aguertu citçaien ere	Aguertu citçaien ere	Aguertu citçaien ere
Guztiei azkenean,	Guztiei azkenean,	Guztiei azkenean,
Iuduen beldurrez fala	Iuduen beldurrez	Iuduen beldurrez
Ceudecela batean.	Ceudecela fala batean.	Ceudecela batean.

Argi dago, gure ustez, lekukotasun berriagoen irakurketa lectio facillior bati egotz dakiokela. *Noelac*en edizio desberdinen aurkezpena egiterakoan, bestalde, 15c eta 15c1 izendatu genituen bezala izendatzearen arrazoiak eman genituen (grafia kontuak, e.a.). Adibide honek egin genuen kronologia baieztatzen du: C1 edizioa izan balitz B irakurtzen duena, eman zitekeen ematen den emaitza, 'sala' hori desagertzea. Baina Ck C1 irakurri izan balu, zailagoa da agertzen ez den 'sala' bat gehitzea, aieruz zuzentzea. Errezagoa, probableagoa da C1ek edo talde horretako batek C edo D irakurri eta 'sala' ahanzte.

Beste kontu bat ere argi dago, orduan, B irakurtzen duen edizio bakar hori 15c edo 15d direla (inprenta oineko dataren arabera, 15c litzateke). Eta C edo D hori irakurriko lukete gainontzekoek.

---

<sup>31</sup> Bi bertso lehenagoko 'Barkha'ren eraginez, dudarik ez.

● **170 orrialdea**      **IZ1 bertso zenbakia**

Saindu guztiei othoitça / Amuru Sainducotz	B
Saindu guztiei othoitç vmea / Saindrucotz	CD
Saindu guztiei othoitç umea / Saindrucotz	C1E
Saindu guztiei othoit çumea / Saindrucotz	F
Saindu guztiei othoit humea / Saindrucotz	GHI

Hemen ere, argi ikus dezakegu B batek baizik ez duela irakurtzen (lectio faciliior baten eraginez dugu dugun aldaera) eta gainontzeko guztien aldaera B irakurri duen horretara baizik ez doala, ez Braino. Berriro ere CD alde batetik eta C1E bestetik, grafia kontuan baizik ez bada ere. Fk bere bidea hartzen du eta GHik beraiena. GHik dakartena, esaterako, huts bateratzailea litzateke hiru ediziook kontuan hartuta. Argi dago, bestalde 'othoitç umea' huts banatzailea dela Brekiko.

● **226 orrialdea**      **4.234 bertso zenbakia**

B lekukotasuna	CD lekukotasunak
Iongoicoac nahi içan Çuen azken fiñean Hequin ohorea aguer Cedin gente artean.	Iongoicoa nahi içan Çuen azkennean Hequin ohorea aguer Cedin gente artean.
C1EFH <sup>32</sup> I	G lekukotasuna
Iongoicoac nahi içan Çuen azkenenean Hequin ohorea aguer Cedin gente artean.	Iongoicoa nahi içan çuen azkenençat Hequin ohorea aguer Cedin gente artean.

1) Kasu honetan ere lectio faciliior baten aurrean gaude. 'fi' horrek 'ñ' ematen duenez, logikoa da CDk 'azken fiñean' > 'azkennean' irakurri izana, 'azkenññean' posible ez zela pentsaturik.

2) C1 eta gainontzekoek 'nn' bien artean bokale bat sartzen dute, 'azkennean' > 'azkenenean' (alderantzizko kasua ez litzateke posiblea: 'azkenenean' irakurri eta 'azkennean' ematea); akaso CDk 'azkenean' izan balute, pentsa zitekeen C1 irakurri eta duplografia baten aurrean zeudela konturatuz, 'ne' kenduko zutela, baina honela ez.

3) Hn 'azkenenean' dugu eta Gn 'azkenençat'. Hk G jarraitu izan balu, 'azkenençat'etik 'azkenenean' irakurtzea zaila da. Gk H jarraituz, aldiz, logikoa da gertatzen den aldaera, oinoharrean eman dugun arrazoia dela medio.

---

<sup>32</sup> Edizio honetako azken 'e'ak ia 'c' ematen du, hau da 'azkenencat'. Hori horrela izanik, Gk H irakurri izan zuela suposatuz gero, logikoa da Gren irakurketa 'azkenençat', egin duen gauza bakarra zera baita, 'c' hori 'ç' bihurtu, behar bezala.

4) Ik ere 'azkenenean' irakurtzen du.

Ikus dezagun adibide hau:


B) Bere superbiac çuen  
Allabañan erretcen,  
Handigoaz berce deufic  
Ez baitçuen penfatcen.

CD) Bere superbiac çuen  
Allabañan erretcen,  
Handigoaz berce deufic  
baitçuen penfatcen.

Gainontz.) Bere superbiac çuen  
Allabañan erretcen,  
Handigoaz berce deufic  
Baitçuen penfatcen.

Hau, izan, kalte material batek eragin duen hutsa da gure ustez, baina interesgarri bihurtzen du jarraiko kontuak: Argi dago Ck B irakurri eta, 'Ez' nonbait galdua, hutsunea mantentzea erabaki duela. C1k C irakurri duenean, ordea, 'baitçuen' hori zuzendu eta maiuskulaz jarri du aurreko hiru bertsoetara lerrokatua.

Kontu hauen aurrean zilegi dirudi honakoa:



Puntu honetara helduta, interesgarria litzateke CDri buruzko lerro batzuetan luzatzea.

Biak dira tipografikoki berdintsuak, ia berdinak esango genuke. Eta beraien artean ez dago huts amankomun banatzailerik; ez behintzat zeinek zein jarraitzen duen adierazteko bestekoak. Aztarnaren bat edo beste badugu, ordea, eta horietara joko dugu:

Lehena eta garrantzitsuena, gure ustez, inprenta oineko datarena da. Ck «Baionan, Maffre Baitan, bors / Cantognetan. 1697» dakar; Dk, ordea, «Baionan, Maffre Baitan bors / Cantognetan. 1699». Datok zuzenak badira, argia da Dk C irakurri duela.

Bi edizio desberdinen aurrean gaudela argi erakusten dute bi ediziootako 9. orrialdeko montaiak honek:



**IOANNES ETCHEBERRI**  
 Dotor Theologo liburu hunen  
 eguillearibere adisquideac  
 laudoriozco copla.

**N** Icebehintcat aithortcē  
 dur  
 Cure çordun çarela,  
 Gure Illhumbetic khentceco  
 Cucia çu çarela.  
 Caharturic cioana  
 Escara erortcera,  
 Etcheberrian sarthuric  
 Berriz doa fortcera.  
 Erdaldunac ahal doazque,  
 Cein bere herritara,  
 Gogat eguinic, galduco  
 Ezutela Escara.  
 Aspaldion cegoena  
 Guztientçat azpico  
 Etcheberric alt chaturic

15c edizioa

Hona alderik nabarienak:

— Pleka bera desberdina da edizio batean eta bestean.

— 1. lerroan:	<i>IOANNES</i>	<i>JOANNES</i>
	<i>ETCHEBERRI</i>	<i>ETCHEBERRI</i>
7. lerroan:	<i>Gure</i>	<i>Gure</i>
12. lerroan:	<i>Berriz</i>	<i>BerriÖ</i>
18. lerroan:	<i>GuÖtientçat</i> <i>azpico</i>	<i>Guztientçat</i> <i>aÖpico</i>
19. lerroan:	<i>Etcheberric</i>	<i>Etcheberric</i>

Honelako aldaketak ugariak dira testu osoan zehar, bi edizioen aurrean aurkitzen gabela aitortzeko adineko aldaketak.

Bigarren aztarna grafiarena litzateke: B eta C dira grafia arkaikoena darabilten lekukotasunak. C1 da argien aldentzen dena bi lekukotasunotatik (gero ondorengoak) baina Dn ere ikus daiteke grafia aldaketa honen zertzeladarik. Argi dago, gure ustez, C



**JOANNES ETCHEBERRI**  
 Dotor Theologo liburu hunen  
 eguillearibere adisquideac  
 laudoriozco copla.

**N** Icebehintcat aithortcē  
 dur  
 Cure çordun çarela,  
 Gure Illhumbetic khentceco  
 Cucia çu çarela.  
 Caharturic cioana  
 Escara erortcera,  
 Etcheberrian sarthuric  
 Berriz doa fortcera.  
 Erdaldunac ahal doazque,  
 Cein bere herritara,  
 Gogat eguinic, galduco  
 Ezutela Escara.  
 Aspaldion cegoena  
 Guztientçat azpico  
 Etcheberric alt chaturic

15d edizioa





Halfi ciñen guerla eguiten / Luther Apofotatari  
Apoftatari  
Halfi bihotça arguicen / Infidel itfuari.

BCD  
Gainontzekoak

● **238 orrialdea**      **4473 bertso zenbakia**

Efcolac cintuen bazter / Guztietan idequi  
Efcoluac  
Efcolua  
Hetan gazte errebeffac / Verthutera iraiqui.

BCD  
C1EFGH  
I

Azken hiru adibideotan, aldiz, BCD eta gainontzekoen irakurketaren arteko aldea letren gehiketan dago. Gure ustez, lehen bi kasuetan behintzat, *lectio facillior* baten ondorio izan daiteke aldaera: 'egun' > 'eguin' nahastu eta 'apostatari' hitza 'apostolu' hitzaren eraginez agian. Azken kasu honetan, gainera, hutsa gorengo edizioek dakarte, gainerakoek zuzendu egin dute.

Laburbilduz, orain arte eskeini ditugun adibideak argi erakusten dute B dela dugun lekukotasunik zaharrena edo *stemman* goren jarri genezakeena. Badakigu, gainera, Bra edizio bakarra heltzen dela eta hau C edo D dela (gure ustez C, aipatu arrazoienatik).

Jarraian beste adibide multzo bat aurkeztu nahi dugu: denetan ditugu huts bateratzaileak, EGHI edizioak batean biltzen dituzten hutsak. Noski, E edizioa bakarrik hartzen badugu, orduan C1ekiko huts banatzaileak liriateke.

Hona adibideak:

● **011 orrialdea**      **0058 bertso zenbakia**

BCC1DF  
Etchearen leihoac çuc  
eztitutçu çarratçen,  
Rhima aiticic ditutçu  
raroenac banatcen.

EGHI  
Etchearen leihoac çuc  
Rhima aiticic ditutçu  
raroenac banatcen

Mintzatuak gara zeharkako tradizioz heldutako testuen atalean bertso sorta hauezaz. Arginaratzen bertsoak dira eta EGHI 14. bertsoa falta da. Egin zuen P. Lafittek bere saiotxo zuzentzen baina ikusia dugu ez zela zuzena izan.

Argi uzten du, bestalde, adibide honek multzo honetako batek (E, G, H edo I) C1 irakurtzen duela eta ez alderantziz, azken kasu honetan C1n ere bertso hau faltatuko litzatekeelako. Are, Fk ez luke kronologikoki zaharragoa den E irakurriko, bestela honetan ere bertso hau faltatuko litzateke. Beste bi datu garrantzitsu, bada.

● **016 orrialdea**      **0115 bertso zenbakia**

BCC1DF

EGHI

Sanfon hunec eguinen dic  
Obra handiagoa  
Ceren garaituco baitu  
Ifernuco campoa.

Sanfon hunec eguinen dic  
Obra handiagoa  
Ifernuco campoa,  
Ceren garaituco baitu.

● **020 orrialdea**      **0191 bertso zenbakia**

Virginitatea gatic<sup>33</sup> / Iaun onac propheta  
Eman daroçu mereci / Ezginduen faria  
dataçu

BCC1DF  
EGHI

● **048 orrialdea**      **0686 bertso zenbakia**

Ikhus eçaçue ceuen / Iauna beheratua  
Iauhena beratua  
Ceruetan handi dena, / Lurrean ttipitua.

BCC1DF  
EGHI

Hemen metatesi baten aurrean gaude, 'beheratua'ren 'he' aurreko hitzera pasatu da, 'Iauna'tik 'Iauhena'ra pasatuz. Hutsa lau edizioetako batek egin du eta gainontzeko hirurak ez dute zuzentzen jakin.


● **091 orrialdea**      **0686 bertso zenbakia**

Çordun ezten arren nahi / Du leguea complitu,  
Tenitu den guztiari / Emateco exemplu.  
Eppheac iragatera / Nahi eztitu vtci,  
Ecen iaio dela eztu / Egunic baicen çortci.<sup>34</sup>  
Ecen iaio tuezdela

BCC1DF  
EGHI

Hau ere beste metatesi sinestezina da, baina hor dago lau edizioetan.

Uste dugu argi erakutsi dutela azken adibideok EGHI C1Ftik aldentzen direla eta zuhaitz hipotetiko horretan beheragoko maila batean daudela. Jarraiko adibideotan EGHIren arteko erlazioak eta zeinek zein irakurtzen duen zehazten saiatuko gara. Orain artekoarekin honelako zuhaitz moduko bat eraiki genezake:



---

<sup>33</sup> «Sibyllen propheta generalen gañean» du izenburu ahapaldi honek.

<sup>34</sup> Humeak zortzigarren egunean zirkutzisatzeko ohituraz ari zaigu Etxeberri.

● **139 orrialdea**      **2504 bertso zenbakia**

Arren bada Iefus Chrifto / Glorifiqui bitztua	
Eguiqueguçu glorioz / Cuc Bitzteco donua	B
Cuc Pitzteco	CC1DF
Cuc Pityteco	E
Cu Pituqui	HI
çupituqui	G

Oso interesgarria da *locus criticus* hau zuhaitzaren beheko parteko edizioen arteko harremanak aztertzeko. Hona hausnarketa batzuk:

- 1) Oso arrunta da CC1DFk egiten duten b/p aldaketa. Horrek ez du inolako eraginkortasunik.
- 2) Ek ez du 'z' hori ondo irakurri (agian kalte materialen bat zegoelako erduan) eta 'z'ren ordeztu 'y' irakurketa eskaintzen du. Hau da honelako irakurketa dakarren bakarra.
- 3) Posibleena da gainontzeko edizioetako batek (G, H edo I) E hori irakurri eta 'Cuc Pityteco' horri zentzurik aurkitu ez izana. Konposatzaileak edo editoreak, orduan, ezagunen egiten zaion hitzaz ordezkatzeko du, 'supituki'. Gure ustez Hk jarraitu dute E (bi hitzetan dago jarria, eredu itxurari jarraituz) eta Gk biak lotu baizik ez du egin.
- 4) Norbaitek esan dezake E dela H, I edo G irakurri dituen baina, gure ustez, ezinezkoa da hori, 'Cu Pituqui' horretatik 'Cuc Pityteco' lortzea askoz ere zailago eta sinesgaitzago delako.

● **188 orrialdea**      **3465 bertso zenbakia**

BCC1DF	EGHI
O Iainco Semea, arren	Aitaren aitciñean, <sup>35</sup>
Aitaren aitciñean,	O Iainco Semea, arren
Caren ene ararteco	Caren ene ararteco
Herftura, eta menea.	Herftura, eta menea.

● **233 orrialdea**      **4372 bertso zenbakia**

Eznuque feculan eguin / O fan Francez, çureac, Chehero condatu nahi / Banitu verthuteac	BCC1DF
--	--------

---

<sup>35</sup> 15E edizioan, lau bertsoetako ahapaldi honetako lehena ('Aitaren aitciñean') aurreko ahapaldiari itsatsia dago; honela aurreko ahapaldiak bost bertso ditu eta honek hiru:

Salvatore egunean	O Iainco Semea, arren
Igan ciñen Cerura,	Caren ene ararteco
Iviatcera ethorrigo	Herftura, eta menea.
Care berriz mundura	
Aitaren aitciñean,	



Erromatic ethorri cen // Auguftoren manua	BC <sup>37</sup> D
Auftoren	C1 <sup>38</sup> EF <sup>39</sup>
Autoren	GH
Auroren	I

● **047 orrialdea**      **0666 bertso zenbakia**

Emaguiñaren , etçuen / Nihola ere beharric	BCC1DF
Niola	E
Nihor	GHI
Cerengatic ez baitçuen / Sentitu doloreric.	

● **073 orrialdea**      **1188 bertso zenbakia**

Bere camelu handiac / Tuzte defcargaraci,	BCC1DF
Eta dohañac fehiei / Belfotan harraracie	E
garraracie	GHI
ekarraci	

● **081 orrialdea**      **1336 bertso zenbakia**

Erregueac ceudecela / Haurraren adoratcen,	BCC1DF
Errepuftaren beguira / Herodes cen vnhatcen	E
Herodescen	H
Herodeffcen	GI
Herodeffen	

Hemen ere zenbait kontu aipagarri:

1) Ek, agian bi hitzen arteko tartea nahiko estua zelako, bi hitzak lotu eta 'Herodescen' hartu du.

2) Hk E irakurri eta bokale arteko 'ff' hartu du; Gik 'Herodeffen', soberan zegoen 'c' hori desagertaraziz. Hk GI irakurri izan balu ez zen 'c' hori agertuko; are, oso zaila izango zen Gik E irakurri eta 'Herodescen' horretatik 'Herodeffen' egitea.

● **114 orrialdea**      **1998 bertso zenbakia**

Vrricalduric vtcico / Cutelaco vftcan	B
Curelo	CC1DEF
Cruela	GHI

---

<sup>37</sup> CD: aurreko orrialdeko deia 'Auguftoren' da.

<sup>38</sup> C1: Aurreko orrialdeko deia, aldiz, 'Auguftoren' dugu.

<sup>39</sup> F: Aurreko orrialdeko deia ere 'Auftoren' da.



Erdi cenean, Virgina // Bihurtu cen etchera,  
Bera ere hurbiltcen cen / Erditce epphera  
Eta

BCC1DEF  
GHI

● **047 orrialdea**      **0675 bertso zenbakia**

Amac affe çuenean / Eta vngui vnhatu:  
Demborac cuitfan beçain / Vngui çuen trochatu  
hotfan

BCC1DEF  
GHI

● **104 orrialdea**      **1791 bertso zenbakia**

Eta plaga hauc guztiac / Behar çaiçquifñ guerthatu,  
Cergatic eztunen ene / BiĐta eçagutu  
eztun ene

BCC1DEF  
GHI

● **123 orrialdea**      **2188 bertso zenbakia**

Orduan cen eguietan / Frogatu efcritura,  
Hiftoria aiphatcean / Norc ezтуque latztura  
eztugue  
eztugun

B  
CC1DEF  
GHI

● **132 orrialdea**      **IZ3 bertso zenbakia**

Nola Aingueruec manatu cituen Aphostoluei berria ekhar ciecen  
ciren

BCC1DEF  
GHI

● **144 orrialdea**      **1602 bertso zenbakia**

Olibethco mendiaren / Garacitera da igan  
dadiñan  
Ama eta Apostoluei / Azken hitçac han erran.

BCC1DEF  
GHI

● **183 orrialdea**      **3378 bertso zenbakia**

Gu ere orobat gare / Eguitera tenitu  
obtenitu  
Ceren baitugu ontalfun/ Afco errecibitu.

BCC1DEF  
GHI

● **186 orrialdea**      **3433 bertso zenbakia**

Iainco eme Senegatic / Guiçon eguin cinena  
Seme enegatic  
Ecin bihur dieçaqueçut / Laudorio çucena.

BCC1DEF  
GHI

● **196 orrialdea**      **3633 bertso zenbakia**



Han penaraci cintuen / Ecin erran guifara  
penari  
Ertchatcen cinituela / Bere facta gaixtora.

BCC1DEF  
GHI

● **208 orrialdea**      **IZ1 bertso zenbakia**

Edocean emazte fainduren beftacotz  
beftetacotz

BCC1DEF  
GHI

● **220 orrialdea**      **4097 bertso zenbakia**

Ene ondoan heldu da / Ni baño lehen cena.  
∅  
Erregue eta Monarka / Guztietaco lehena.

BCC1DEF  
GHI

Orain aurkezten ditugun adibibeek Fk jarraitu duen bidea argitu nahi dute.

Fk dakarren lehen aldaketa nabaria inprenta oinarena da: CC1DEk «Maffre baitan, bors / Cantognetan» duten bitartean, honek «P. Fauveten, Imprimerian / Carmellen aldean» du. Zazpigarren kapituluan luzaz mintzatuko garen arren, derragun P. Fauvet hau Paul Fauvet izan daitekeela eta honek 1700-1736 bitartean inprimatu zuela. Argi legoke, bada, aurreko inprenta oinen datak zuzenak izatekotan, CC1DE edizioak 1697 (bi) eta 1699 (beste biak) urteetakoak direla eta F hau beranduagokoa dela, 1700-1736 urte bitartekoa. Hori da kontuan izan beharreko lehen datua. Bigarrena, aurrekoek ez eta honek liburuaren amaieran dituen zenbait bertso berri: Izan ere, 241. orrialdean hasita, 10 orrialdetan zehar, jarraiko bertsoak ditugu:

241-248. or.: "*Verbum caroac. Efcaraç Christõ guição eguinda çure ganic Maria*"

249-250. or.: "*Egun estreinatõ gaitu Haurrac odolaz*"

Bertso hauek amaieran jartzearen arrazoi posibleaz ere zazpigarren kapituluan mintzatuko gara.

Argi dago, gure ustez, aurreko lekukotasunen batek F hau jarraitu izan balu bertso hauek agertuko ziriatekeela lekukotasun horretan, eta hau ez da gertatzen; are, ondorengo GHI lekukotasunek ere F jarraitu izan balute bertso hauek ispilatuko zituzketen beraien orrialdeetan eta ez da horrela gertatzen; beraz, badirudi F edizio honek aurrekoren bat izan duela eredu (orain arte aztertu ditugun huts amankomunen arabera, C1 da lekukotasun hori) eta F hau ez dela ondorengo edizioen baten eredu.

Hutsei beraiei dagokionez, F edizioan agertzen diren asko ez dira huts amankomuntzat hartuak izan genitzakeenak; baliogabeak, beraz, lekukotasun honen filiaziorako. Hauen artean aipagarrienak:

a) duplografia arrunt bezala har genitzakeenak

029	0342	F Eeliçama	Gainontzekoak Eliçama/Eliça Ama
-----	------	---------------	------------------------------------

060	0922	Bethleengo	Bethleengo
060	0924	Erefiaz	Erefiaz
066	1044	leiala	leiala
096	1636	Ioingoico	Iongoico
114	1992	Eçatgutu	Eçagutu
209	3879	verthutera	verthutera/vertutera
229	4295	Hondaitçaille	Hondatçaille

b) Haplografiatzat har genitzakeenak

012	0066L	Hirurgarrena	Hirurgarrena
047	0663	mundatçaric	mundantçaric
074	1208	tppia	tppia
129	2321	ikharatu	ikharatu

c) Ordenaren aldaketaz gertatzen direnak

072	1164	Ceturic	Cerutic
091	1545	eratcuñico	eracutñico
205	3799	afdiquide	adifquide

d) Ordezkapenez gertatzen direnak; gehienetan inprentako zenbait letra berdintsuak oso erraz nahasten zirelako.

014	0072	Idecac	Idecac / Ideac (c/t)
046	0652	Egnin	Eguin (n/u)
175	3224	bailchen	bai lehen (c/e)
208	3871	liçate	liçate (c/e)

Baina huts guzti hauezaz aparte, hain erraz gerta ez litezkeen edo huts amankomuntzat har daitezkeen asko daude, F lekukotasun honek besteek jarraitu ez duten bidea jarraitzen duela baieztatzen lagunduko digutenak.

a) Hizkiren baten gehiketaz gertatzen diren hutsak

025	0265	duedenean	duenean
050	0727	Sehafcharic	Sehafcaric
061	0941	Semeac	Semea
068	1091	Icarrac	Içarra
217	4027	Berriac	Berria

b) Hizki/hitzen bat desagertzen denean gertatzen direnak

009	0039	Etcheberri	Etcheberric
071	1155	bihurtcen	bihurtcean
138	2491	fainduc	fainducc
144	2609	du	dut

171	3144	Ceiña	Ceñac/Ceiñac
212	3952	arartecoa	arartecoac
232	4352	Jauna	Iaunac/Jaunac
233	4363	guiçona	guiçonac


c) Ordezkapenez gertatzen direnak

027	0311	Ceñan	Ceñac
051	0755	futela	dutela
052	0766	lauratu	loratu
058	0894	Gateuzte	Gaituzte
068	0172	Ceren	Ciren
069	1110	Sartceaz	Sortcea
071	1143	dut	duc/duo
075	IZ1	era	ere
088	1486	faracen	fartce
179	3294	gaitu	çaitu

Gure ustez, bada, azaldu ditugun adibideok, hutsez landako inprenta eta urte kontuak eta amaierako bertso desberdinenak aintzat harturik, zilegi dirudi C1 eta F maila desberdinetan daudela adieraztea eta lortu ditugun bi azken zuhaitz adarrak kontuan hartzen baditugu:



uste dugu aurrerago joan gaitzkeela eta jarraiko hau aurkez genezakeela



Argi dago EGHIk ez dutela F jarraitzen eta bai C1, aurkeztu ditugun azken adibideek hori erakusten baitute (ez dago EGHIIn Fn bakarrik agertzen den bat ere).

Aurrera egin eta kronologikoki azkenak diren GHI edizioez mintzatuko gara jarraiko

lerroetan eta horretarako G lekukotasuna aztertuko dugu, lehenik eta behin.

*Noelac*en hirugarren partean, Gk ez eta gainontzekoek jarraitzen duten bertsoen ordena honako hau da:

	B eta gain.	G
Iaincoari orenac gutçaz duen ... Igandetacotz	178-180	147-149
Iainco bat denari... Aüelehenecotz	180-182	149-150
Hirurtallunaren orenac Aüeartecotz	182-184	150-152
<i>Iainco Aitaren orenac Aüeazkenecotz</i>	184-186	
<i>Iainco femearen orenac orcegunecotz...</i>	186-188	152-153
<i>Efpiritu fainduaren orenac orciralecotz</i>	188-189	153-154
Ama virginaren orenac larunbatecotz	190-192	155-156
Sainduen orenac... <i>Apostoluen beftetacotz</i>	192-193	<b>189-190</b>
Euangeliften beftetacotz	194-195	156-157
Martiren beftetacotz	195-197	<b>191-192</b>
Ipphizpicu fainduen beftetacotz	197-199	<b>192-193</b>
Doctor fainduen beftetacotz	199-201	<b>193-195</b>
Abbadeen beftetacotz	201-202	157-159

Gn, bada, «Iainco Aitaren orenac Alteazkenecotz», 38 bertso falta dira. Bestalde, «Sainduen orenac hequin beftetacotz. *Apostoluen beftetacotz*», «Martiren beftetacotz», «Ipphizpicu fainduen beftetacotz» eta «Doctor fainduen beftetacotz» bertso sortak tokiz aldatuak dira, liburuaren azken partean jarriak.

Mintzatu gara 5. kapituluaren kopia baten prozesuaz aritu garenean bertsoen toki aldaketa honetaz. Guk bi arrazoi posible eman ditugu: 1) Eredu izan duen alea sorta desberdinetan banatu da zenbait arazoren ondoren eta berriro bildu denean okerreko ordenean bildu dira; orduan konposatzaileak ereduaren ordena jarraitu du, halaberrez. Horrek eredu izan duen alean bertsook plegu haseratan zeudela suposatzen beharko zukeen, baina hori ez da horrela gertatzen gainontzeko edizio batean ere. 2) Bertsook bertso ahapaldiak dira, ez bertso atalak edo bertso solteak, eta, konposaketa prozesua azeleratu asmoz, konposatzaile desberdinek atal desberdinak konposatu dituzte eta biltzerakoan okerreko ordenean bildu dira. Uste dugu hirugarren arrazoi posible bat ere eman daitekeela: editoreak edo inprimatzaileak nahita lekuz aldatu izana. Kasu honetan, aldaketa kontziente baten aurrean geundeko, baina ez diogu logika gehiegirik aurkitzen bertso guztiok osotasun bat egiten baitute.

Hau da lehen kontu garrantzitsua. Bigarrena letra maiuskula eta minuskulei dagokiena da. G lekukotasunan, 87. orrialdetik aurrera, bertso haserako lehen letra, edizio honetako lehen 86 orrialde eta gainontzeko lekukotasunetan ez bezala, minuskulaz dugu jarria kasu gehienetan; honela, maiz, maiuskula beharko zukeen kasuetan ere (hitz bereziak) minuskula dugu.

Hirugarren kontu garrantzitsua, 'guztiak/guziak' erako aldaerena; G edizio honetan, 104. orrialdean hasita, 'guziz', 'guzia', 'guzien', 'guziei', e.a. ditugun bitartean, aurreko orrialdeetan eta gainontzeko edizioetan 'guztiz', 'guztia', 'guztien', 'guztiei' e.a. ditugu.

Hiru kontuok, gure ustez, zera adierazten dute, konposatzaile batek baino gehiagok konposatu duela edizioa eta ez dela inolako arretarik jarri hau egiterakoan.

Laugarren kontu garrantzitsu bat, GHI lekukotasunei dagokiena; amaierako bertso berrien kontua. Ikusi dugu F lekukotasunak azken hamar orrialdeetan zenbait bertso berri aurkezten zituela; hauek ere bertso berri batzuk dituzte, izatez *Noelac*enak ez direnak. Baina ez dira Fn agertzen direnak, bestelakoak baizik. Hauek dira:

- «Stabat Mater» euskaraz, 69 bertsoan zehar.
- «Andredena Mariari Othoitça. Gaudeac» 24 bertso latinez.
- «Andredena Mariari Hymnoa» 60 bertso latinez (Stabat Mater da).
- «Erregueren Orationea. Psalmoa» 46 bat lerro latinez.

Hutsei beraiei dagokionez ere, askotxo dira Gk baizik erakusten ez dituenak. Jarraian azpimarragarrienak aurkeztuko ditugu (den denak aztertu nahi dituenak jo beza eranskinetara):

a) Gehiketaz gertatzen direnak

023	0237	Monarcha	Monarca
024	IZ1	Agripinna	Agrippina
040	0539	here	ere
043	0596	Bethleenen	Bethleen
085	1419	Hazri	Hari
102	1749	eta	ea
130	2340	gorphutça	Gorputca
159	2904	guztian	guztia
176	3253	Labour	Labur
194	3594	Guendetan	Gendetan
233	4370	oifan	O fan
234	4404	deitchatu	deithatu

b) Hizki/hitzen bat desagertzen denean

● **045 orrialdea**      **IZ3 bertso zenbakia**

Bethleenen ofstaturic ecin / aurkhituaren gañean / berce / Noela.      BCC1DEFHI  
Bethleenen ofstaturic ecin / aurkhituaren gañean / Noela.      G

081	1336	Herodeffen	Herodes cen/Herodeffcen
085	1420	Eta	Ezta
101	IZ8	Hierufalemen	Hierufalemera
107	1857	hartaz	hartçaz
107	1861	hautaz	hautçaz
114	2006	açotetz	Açoteez
117	2057	Dolorez	Doloreez
118	IZ1		7.
120	2123	hartaz	hartçaz

121 2143 cituzten cintuzten

● **123 orrialdea IZ2 bertso zenbakia**

*Gurutcearen ohoretan canta, / gurutcearen beftetacotz.* BCC1DEFHI  
*Gurutcearen ohoretan, canta.* G

147 IZ1 paritu partitu  
240 IZ1 Halabiz.

c) Ordenaren aldaketaz gertatzen direnak

094 1604 barnera barrena

d) Ordezkapenez gertatzen direnak

005 0011L devotionem deuotionean/devotionean  
016 0107 Hatcen Haren  
023 0230 Dilluduen Da Iuduen  
023 0230 berria herria  
030 0351 berric berriz  
037 0490 Gaituzte Caituzte

● **046 orrialdea 0644 bertso zenbakia**

Ilkhi direnean dute / Bazterrera behatu, BCC1DEFHI  
Eta appartean etche / Cholabat nauaritu. HI  
Cholabac nauritu G  
Cholabac caucitu.

050 0724 Guztic Guztiz  
068 1093 Oçucia O çucia/O çucia<sup>40</sup>  
072 1167 beraiz berriz

● **101 orrialdea IZ8 bertso zenbakia**

Jefus Chriftoren Hierufalemera fartcearen gañean Arramucotz Canta BCD  
fortcearen C1EH  
Hierufalemerã » F  
Hierufalemen » G  
Hierufamelera Canra I  
1. *Nola Hierufalemera aſto gañean farthucen* BCC1DEFH  
*Hierufalamera* G  
*Hierufamelera* I

---

<sup>40</sup> 15h eta 15i edizioetan tartea nahiko txikia da.

Bi esaldiok orain arte azaldu dugunaren ezaugarri baliogarria dira; lehenean, BCD bide argia ikusten da. Bestalde, argi dago HIK ez dutela G jarraitu, bestela, '*Hierufalemen*' irakurriko genuke bi lekukotasunetan.

106	1839	çuen	ceuen
107	1852	guriz	Guztiz
110	1914	elkhari	Ekharri
111	1929	Nazarecoac	Nazarenoac

● **117 orrialdea**      **2056 bertso zenbakia**

Egarri cela ceroen / Erran Iudu gaixtoei:  
Miagrea presentatu / Haren ezpain fainduei  
miagrea                      azpian                      Gainontzekoak  
G

125	2236	Urritera	Vrruitira/Urruitira
128	2291	çare	Cure

● **128 orrialdea**      **2291 bertso zenbakia**

Cure baithan dire Chriftau / Guztiaç gloriatcen  
Cure baithan dute bere /Esparantça ematen.  
çare baitban                      Gainontzekoak  
G

● **130 orrialdea**      **2337 bertso zenbakia**

Andre onac cioacen / Trifteric baratcera  
cioen                      Gainontzekoak  
G  
Vnguentu onez Iaunaren / Gorputça gantçutcera.

138	2484	hillac	Hillic
141	2553	Curi	Guri
171	3156	cutçaz	Gutçaz
207	3848	gogoiqui	gogorqui <sup>41</sup>
219	4088	nagoënaten	Dagoenaren/Dagoënaten
226	4234	azkenençat	azken fiñean/azkennean/azkenenean


Argi erakusten dute azaldu ditugun lau kontuak eta erakusgarri jarri diren hutsen adibideok HIK ez dutela G jarraitzen, bestela ez ziratekeen Gn falta diren bertso sortak agertuko eta bertsoen ordena bera ere aldatua agertuko baitzatekeen. Are, Gn agertu diren hutsak ere ez dira inondik ageri HI lekukotasunetan.

Aurreko orrialdeetan, bestalde, GHI biltzen zituzten huts bateratzaileei zegozkien adibideak ikusi ditugu; beraz, GHI biltzen dituzten huts bateratzaileak baditugu eta, era

---

<sup>41</sup> 'r' hau oso gutxi ikusten da eta 'i' baten antza duela ematen du 15h edizioan.

berean, G beste biengandik banatzen duten huts banatzaileak, argi dago lekukotasunek jarraitu duten bidea honako hau dela:



amankomun argiak lortu.

Jarraian HI lekukotasunen arteko erlazioa aztertuko dugu, bi lekukotasunak lotzen dituzten zenbait huts bateratzailearen adibideak jarritz.

a) Gehiketaz gertatzen direnak

099	1714	Ilkhuffi	Ikhuffi
107	1862	belkhaizten	bekhaizten/bekhaiztē

● **125 orrialdea**      **2227 bertso zenbakia**

Cuc ekharri darocuḡu / Biciaren fruitua, Arima goffeei eman / Cuc faciamendua goffoei	Gainontzekoak HI
---	---------------------

● **185 orrialdea**      **3425 bertso zenbakia**

Gauḡa hauc cituenean / Sei egunez obratu, Guero cindu en Igande / Egunean paufatu cinduen en	Gainontzekoak HI
--	---------------------

● **186 orrialdea**      **3432 bertso zenbakia**

Arren bada Iainco Aita / Gaucen creatḡaillea, Fauora naḡaḡu ceure / Creatura feblea febleac	Gainontzekoak HI
---	---------------------

b) Hizki/hitz baten desagerpenez gertatzen direnak

122	2173	Veperatan	Vezperatan/Vesperatan
160	2932	nior	nihor
184	IZ1	Ainco	Iainco
185	3414	beatu	behatu
209	3895	trimpfarequin	triumpharequin

c) Ordenaren aldaketaz gertatzen direnak

200	3704	bantacen	banatcen
215	3993	aitcieñtic	aitciñetic



d) Ordezkapenez gertatzen direnak

● **013 orrialdea**      **0074L bertso zenbakia**

Iefus Chriftoeren fortce aitci/ñeco Gaucen gañean Noëlac	BCC1DEF
aitciñeca	HI
aitciñera	G

Eta sei lerro geroago:

Iefus Chriftoeren fortce ait/ciñecogaucen gañean Noëlac	BCC1DF
aitciñeo	E
aitciño	HI
aitcino	G

Lehen adibidean, 'aitciñeco' dugu BCC1DEF lekukotasunetan; HIK 'aitciñeca' dakarte eta Gk 'aitciñera'. Gk E irakurri izan balu ('aitciñeco'), ez zukeen egin duen 'aitciñera' ori egingo; 'aitciñeca' irakurri eta 'aitciñera' *zuzentzea* logikoagoa da; hau da, logikoagoa da Hk E irakurri izana eta gero Gk H eta ez Gk E irakurri eta Hk G.

Bigarren adibidean, 'aitciñeco' dugu lehen sei lekukotasunetan. Dena den, harrigarria dirudi sei lerro aurrerago konposatu duten esaldi berbera ondo berkonposatu ezina. Argi erakusten du honek ez zela inolako konturik eta harretarik jartzen garai hartako inprentan konposatzerakoan (*Noelac*en edizio desberdinetan behintzat).

178 IZ2                      HUNGN                      HVNEN/HUNEN

● **013 orrialdea**      **0074L bertso zenbakia**

Larumbatean cintuen / Moldatu lar'abreac	Gainontzekoak
lare abreac	HI

222 4136                      Ohorec                      Ohorez

Adibide guztiok argi erakusten dute HI lekukotasunen lotura.

Azkenik, I lekukotasuna besteengandik aldentzen duten hutsak jarriko ditugu:

a) Gehiketaz gertatzen direnak

020 IZ1	239.	39.
022 0222	caltera	caltea
024 0262	heriora	herioa
027 IZ4	Credoac	Credoa

● **146 orrialdea**      **2650 bertso zenbakia**

Ezta hala içanen (erran / Ceroen Iaun iuftuac)	Gainontzekoak
(erran / Ceroën	H
(erran / ceroën	G
/ Ceroën Iaun iuftuac erran	I
Confolatuco çaituzte Spiritu fainduac.	

153	2787	animac	anima
153	2794	Efcou	Efcu
166	3058	Guztiac	Guztia/guzia
181	3347	çucenac	çucena
204	3780	Hartean	Artean

b) Hizki/hitz baten desagerpenez gertatzen direnak

037	0489	gorc	gorec
042	0581	ignataci	iganaraci
047	0669	citçain	citçaiion
058	0886	billatu	billhatu
064	1020	barnean	barreanean
066	1056	frogatu	frogatua
069	1103	dut	dute
093	1586	Iaun	Iauna
113	1983	bura	burla
122	2170	iuftuaren	iuftuarena
131	2358	Darotçue	Darotçuet/Darotçuec
138	2492	illarria	illharria
159	2909	Ona	Onac
159	2912	Iguzquia	Iguzquiac
164	3013	faindua	fainduac
179	3310	chehea	cheheac
183	3368	çuhaitz	çuhaitz
212	3950	faihetfecoa	faihetfecoa

c) Ordenaren aldaketaz gertatzen direnak

029	0333	iaquiñena	iaquiñean
029	0345	auatcen	auatcen
044	0619	Arrenac	Arrañec/Arranec
059	0906	falutaceco	faluatceco/favatceco/fauatceco
073	1176	Oratçarri	Orratçari
093	1577	benedica	bedinca
120	IZ1	onerac	orenac

d) Ordezkapenez gertatzen direnak

005	0004L	ifpiritualezco	efpiritualezco
051	0739	deçu	duçu
052	0769	Arrañic	Arrañac

055	0831	Belhaunico	Belhaurico
055	0835	belhaunjco	belhaurico
058	0898	belhaunico	belhaurico
059	0902	Içurren	Içarren
064	1010	gucia	çucia
065	1023	belhaunico	belhaurico

● **071 orrialdea**      **0074L bertso zenbakia**

O Bethleen Iudeaco / Ez hiri ttipiena !	Gainontzekoak
tipiena	G
Iudea co iri tripenea	I
Hire ganic illkhico duc / Erregue Iuduena.	

071	1149	deçuena	duçuena
074	1196	Belhaunico	Belhaurico
088	1487	gochoa	gachoa
090	1520	circumtcifatcera	circuncifatcera
091	1530	leguia	leguea/legua
091	1539	deçu	duçu
091	1541	deçu	duçu
091	1545	deçu	duçu
092	1566	circumcifatu	circuncifatu
094	1594	Segurantçac	Segurantçaz
094	1596	maitia	maitea

● **099 orrialdea**      **1709 bertso zenbakia**

Azkenean etfitoric / Templuan ciren farthu	Gainontzekoak
aurquituric <sup>42</sup>	I
Eta han çuten difputan / Dotorequin aurkhitu.	

100	1729	Patientique	Patientqui
101	IZ7	ifpiritualac	espiritualac
108	1886	Pharifauac	Pharifauec/Pharifavec
109	IZ1	<i>foiduaren</i>	fainduaren

● **112 orrialdea**      **1957 bertso zenbakia**

Diruz corronpitu çuten / Haren espenfaria	Gainontzekoak
---	---------------

---

<sup>42</sup> Bi bertso geroago 'aurkhitu'-ren ondorioz, ziurren. Ahapaldi osoak honela dio:

Azkenean aurquituric / Templuan ciren farthu  
Eta han çuten / Dotorequin aurkhitu

Ikus, bestalde, 'aurquituric' eta 'aurkhitu' hiru lerroren buruan.

ciren.<sup>43</sup> I  
Ceñac muffu batez faldu / Baitçuen Nauffia.

124	2199	gucis	çuciz/çucis
133	2390	pagatu	pagutu

• 139 orrialdea 2506 bertso zenbakia

Ea Guiriftinoac Bazco / Egunean biz gaiten Gainontzekoak  
gañen I  
Egun hunec berac gaitu / Hartara gombidatcen.

145	2624	Eguiteac	Eguiteaz
156	2842	Cutaz	Gutçaz/Gutaz

• 158 orrialdea 2897 bertso zenbakia

Hartçaz gaitutçu Iaun - ona / creaturac bazcatcen Gainontzekoak  
J an on I  
Ceure odol facratuaz / Halaber edaraten.

186	3439	ganean	gauean
190	3511	çiçeu	çiñen
216	4019	Gau	Hau

I beste lekukotasunetatik aldentzen duten adibideon aurrean, aipa dezagun Hiren arteko lotura dela, In agertzen diren huts guzti hauek ez baitira Hn agertzen.

H  
|  
I

Hn, bestalde, ez dugu aurkitu Ik edo Gk ez dakarren huts banatzailerik. Guzti hauen aurrean, beraz, bidea proposatzen dugu.

H  
/ \  
G I

3.4.1. *Noelacem* stemmata codicuma


*Noelacem* lekukotasun desberdinen aldaeren azterketa eta aukeraketaren ondoren, ordea, huts amankomun —bateratzaile eta banatzaile— ugari aurkitu eta *stemma codicuma* marratzeko bezala aurkitzen garelakoan gaude.

Hona, bada, proposatzen dugun obra honen lekukotasun desberdinen erakuspen

---

<sup>43</sup> Aurreko bertsoa 'Moian billatu ciren.' dugu.

grafikoa:



A. Blecuak dioenez (1987: 78), kodizeen data eta inprimaturiko testuena ezagutzen denetan, siglak garaiera desberdinetan kokatzen dira (baxuenek, logikoki, lekukotasunrik berrienak ordezkatzan dituzte) eta gure kasuan ere ohitura hau isladatzen saiatu gara.

Jakina da B lekukotasuna 1645.ean inprimatua dela Bordelen, G. Milangesenean. C eta C1 lekukotasunak 1697koak dira baina azken honek aurrekoa irakurtzen duenez beherago jarri dugu. D eta E 1699koak dira eta logikoa da bata bestearen mailan jartzea. F eta H Paul Fauvetenean inprimatuak dira eta hau honela dela (Paul Fauvetek 1700-1736 tartean inprimatzen du) biak maila berdintsuan jartzea erabaki dugu. G edizioa Jean Fauvetenean (1736-1760) inprimatua da eta aurreko biak baino beheragoko maila batean jarri beharko dugu. I lekukotasuna ere P. Fauvetenean inprimatua da. Gure ustez, P. Fauvet hau ez da F eta H inprimatzen dituen Paul Fauvet zaharra bere hiloba Paul, Jeanen seme, baizik. Paul honek —hurrengo kapituluan ikusiko dugunez— inprenta berria ireki zuen karmeldarren elizaren aldamenean. Honek eragin handia du, lekukotasun honen tipografia berria eta desberdina delako.

Kontu honekin amaitu aurretik argi utzi nahi genuke stemma codicum hau anker gelditzen dela hemen ez baitugu ez originalaz ez ustezko lehen edizioari buruzko zehaztasunik eman .

Argi dago aztertu ditugun lekukotasun guzti hauek goragoko testu batera doazela. Kasu honetan B lekukotasuna litzateke goragoko bat irakurri duena. Zein da, ordea, irakurri duen hori? Vinsonek bere bibliografian 15a zenbakiz izendatu eta Pierquin de Gembloux (1858a: 7 gehigarriak) aipatzen dutena ala originala?

Ez du gure lan honetan garrantzi gehiegirik kontu honek. Gure helburua eskuartean genituen lekukotasun guztien filiazio zuzena egitea zen eta, bidenabar, hauen erakuspen grafikoa eskaintzea eta, alde honetatik, helburuak beteak direlakoan gaude.

#### 4. Ondorioak

*Noelac*en lekukotasun desberdinen huts amankomunen azterketak eta aukeraketak Vinsonek aipatzen dituen zenbait kontu argitzen eta zuzentzen lagundu digute eta, ondorioz, obra honen edizio desberdinen sailkapen bibliografiko berri baten beharrean aurkitzen gara. Eta kontu honetan du, gure ustez, orain aurkezten den lan honek benetako garrantzia, baldin eta garrantzia badu, lan osoan zehar aipatu ditugun zeregin guztiak bete ondoren, katalogatu gabeko edizio baten berri emateko ezezik, sailkapen berri hori aurkezteko ere gai baita.

Hona proposamen berri hau:

##### **Na edizioa** (Vinson, 15a)

"-NOELAC ETA BERCE canta espiritual berriac. *Iesus Christoren biciaren mysterio principalen gañean*. Eta fainduen ohoretan befta buruetacotz. *Ioannes Etcheberri Doctor Theologoac eguiñac*. BORDELEN, G. MILANGES, 1630 edo 1631."

Aita Larramendi da edizio honen berri ematen duen lehena, Baionan inprimatua dela dioen arren; Pierquin de Gemblouxek ere aipatzen du edizio hau eta Vinsonek suposatu baizik ez du egiten, bere ustez oso arraroa baita 1630.ean baimena lortu eta 1645.era arte inprimatu gabe izatea.

Ez dugu inon aurkitu edizio honen arrastorik.

##### **Nb edizioa** (Vinson, 15b)

"NOELAC | ETA BERCE | canta espiritual | berriac. | *Iefus Christoren biciaren my- | fterio principalen gañean*. | Eta fainduen ohoretan befta buruetacotz. | *Ioannes Etcheberri Doctor | Theologoac eguiñac*. | (fleuron) | BORDELEN, | GVILLEN MILANGES, Erre- | gueren Imprimatçaillea | baithan, 1645."

In-8 txikia erakoa, 251 orrialde. Neurriak: 45 mm x 98. Zeinadurak: A p. 1, B p. 17, C p. 33, e.a.

P. de la Masse Donibane Lohitzuneko apaizak eta P. de Urthubie Teologian doktoreak baitetsia, 1630.eko abuztuaren 6an. Baimena, *Manual*-ean legez, M. d'Oiharard Bikario Jeneralarena da, urte eta hilabete berbereko egun bi beranduagokoa, 8koa. Joan Ihartius eta Stefano Hirigoitiren laudoriozko bertsoak eta P. Argaiñarats-en akrostiko bat dakartza.

Londreseko British Museumean dago ezagutzen dugun ale bakarra.

##### **Nc edizioa** (katalogatu gabea)

"NOELAC | ETA BERCE | canta espiritual | berriac. | *Iefus Christoren biciaren | miferio principalen | gañean*. | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *Ioannes ETCHEBERRI Doctor | Teolegoac*

: *egniñac.* | (croix entre deux petits fleurons) | BAIONAN, | MAFFRE Baitan bors | Cantognetan. 1697."

In-8 txikia erakoa, 240 orrialdetakoa da. Neurriak: 44 mm. x 96. Zeinadurak: A p. 1, B p. 16, C p. 25, D p. 41, E p. 49, e.a.

Baimenak, onespén eta laudorioak besteetakoak dira.

Newberry Librairyk, Chicagon, badu edizio honen ale bat, Luis Luziano Bonaparteren bilduman.

#### **Nd edizioa** (Vinson, 15c)

"NOELAC | ETA BERCE | canta espiritual | berriac. | *Iefus Christoren biciaren | misterio principalen | gañean.* | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *Joannes ETCHEBERRI Doctor | Teolegoac : egniñac.* | (croix entre deux petits fleurons) | BAIONAN, | MAFFRE Baitan bors | Cantognetan. 1697."

In-8 txikia erakoa, 240 orrialdetakoa da. Neurriak: 44 mm. x 96. Zeinadurak: A p. 1, B p. 16, C p. 25, D p. 41, E p. 49, e.a.

Baimenak, onespén eta laudorioak besteetakoak dira, argitarapén guztietan bezalaxe.

Edizio honetako ale bat Koldo Mitxelena kulturguneko J. Urkixoren liburutegian dago.

#### **Ne edizioa** (Vinson, 15d)

"NOELAC | ETA BERCE | canta espiritual | berriac. | *Iefus Christoren biciaren | misterio principalen | gañean.* | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *Joannes ETCHEBERRI Doctor | Teolegoac egniñac.* | (croix entre fleurons) | BAIONAN, | MAFFRE Baitan bors | Cantognetan. 1699."

In-8 txikia erakoa, 240 orrialdetakoa.

British Museumean dago aurkitu dugun ale bakarra.

#### **Nf edizioa** (Vinson, 15e)

"NOELAC | ETA BERCE | canta espiritual | berriac. | *Iefus Christoren biciaren | misterio principalen | gafean.* | Eta fainduen ohoretan befta buruetacotz. | *Joannes ETCHEBERRI Doctor | Teolegoac egnifac.* | (croix simple) | BAIONAN, | MAFFRE Baitan, bors | Cantognetan. 1699."

Hau ere in-8 txikia erakoa, 240 orrialdetakoa. (241 orrialde zenbatu dira, baina hau 89. zenbakia falta eta 88.aren ondoren 90.a datorrelako da. Zenbaki honetatik aurrera, bada, erako orrialdeak zenbaki pareak dituzte, ezpareak itzulitakoak.) Zeinadurak: A p. 1, B p. 17, C p. 25, D p. 41, E p. 49, e.a. Neurriak: 41 mm. 5 x 96,5.

Berezitasun nabari bat dauka, 220. orrialdetik aurrera testuko letra desberdina da, askoz txikiagoa. Vinsonen ustez (1891-8: 70), argitarapén hau aurrekoaren faltsupena edo

kontraegina da. Oker dago baina. Erakutsi dugu huts amankomunen azterketa eta *stemma codicumaren* bitartez Vinsonen 15e honek 15c1 irakurtzen duela, ez 15d; beraz, uste hori ez da zuzena.

Ezagutzen dugun edizio honetako ale bakarra Donibane Lohitzunen dago, Maria Josefa Lanuzaren liburutegian.

#### **Ng edizioa** (Vinson, 15f)

"NOELAC | ETA BERCE | canta efpiritual | berriac. | *Jefus Chriftoren biciaren | misterio principalen | gañean.* | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *Joannes ETCHEBERRI Doctor | Teolegoac egniñciac.* | (croix entre fleurons) | BAYONAN, | P. Fauveten, Imprimerian | Carmeffetaco aldean."

Hau ere in-8 txikia erakoa, 250 orrialdetakoa da. Zeinadurak: A p. 1, B p. 17, C p. 25, e.a. Neurriak: 45 mm x 95. Betiko gaiak dakartza.

Edizio hau 1700-1730 bitartekoa da eta Koldo Mitxelena kulturgunean eta British Museumean edizio honen ale bana dute.

Argitarapen honen amaieran aurrekoetan agertzen ez diren bertso sortak ditugu: 241. orrialdean *verbum caroac*, euskaraz; 245.ean *claritates guçia*, Ama Mariari eskeinitako abestia; 249. orrialdean *Iesus Haurtcho larru*, Iesusen zirkuntzizioari buruzko bertsoak.

#### **Nh edizioa** (Vinson, 15h)

"NOELA | ETA BERCE | canta fpiritual berriac. | *Jefus Chriftoren hiciaren | misterio principalen gañean.* | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *Joannes ETCHEBERRI Doçtor | Teolegoac egnifiac.* | (croix simple) | BAYONAN, | P. FAUVET, Imprimatcaillea | baithan, Carmefen aldean"

In-8 txikia erakoa, 240 orrialdetakoa. Zeinadurak: A p. 1, B p. 17, C p. 25, D p. 41, e.a.; neurriak: 45 mm x 97.

Argitarapen honetan, 211. orrialdetik aurrera, letraren neurria txikiagoa da. Argitarapen honek ere besteetan agertzen ez diren bertso sorta batzuk ditu amaieran. 232. orrialdean, *Stabat*-en itzulpena; 235.ean, *Gaudeac*, Andra Mariari eskainiriko latinezko bertsoak; 236. orrialdean, *Stabat* latinez, eta 239. orrialdean erregeari eginiko otoitza latinez.

Newberry Librairyn dago edizio honen ale bat.

#### **Ni edizioa** (Vinson, 15g)

"NOELA | ETA | BERCE | CANTA | ESPIRITUAL BERRIAC. | *Jefus Chriftoren hiciaren misterio | principalen | gañean.* | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *Joannes ETCHEBERRI Doçtor | Teolegoac egnifiac.* | (3 fleurons, deux et un) | BAYONAN, | J. FAUVET, Imprimatcaillea | baithan, bortz-Cantoiñetan."

Hau da era desberdineko bakarra, in-12koa, 204 orrialdetakoa. Zeinadurak: A p. 1, B p. 13, C p. 25, D p. 37, E p. 49, e.a. Neurriak: 58 mm x 112. Aurreko argitarapenean



amaieran agertzen diren bertso sorta berri berberak agertzen dira honetan ere.

1731-1760 bitarteko edizio honen ale bat Koldo Mitxelena kulturgunean dago.

### Nj edizioa (Vinson, 15i)

"NOELA | ETA BERCE | canta |piritual berriac. | *Jesus Christoren hiciaren mif-* | *terio principalen gañean* | Eta fainduen ohoretan befta | buruetacotz. | *JOANNES ETCHEBERRI*, | *Doctor Theolegoac egnifac.* | BAYONAN, | P. FAUVET, Imprimatçaillea | baithan, Carmefen aldean"

In-8 txikia erakoa, 230 orrialdetakoa. Zeinadurak: A p. 1, B p. 17, C p. 33, D p. 49, e.a. Neurriak: 51 mm. x 89.

Honetan ere aurreko bi argitarapenetako bertso sorta berri berberak. 106. orrialdetik aurrera (bigarren ataletik aurrera, alegia) letraren neurria txikiagoa da.

Edizio honek, Vinsonen zioena zioela, 1760-1791 bitartekoa izan behar du, Paul Fauvetek, Paul zaharraren iloba, inprimatua bere inprenta berrian.<sup>44</sup> Are, Vinsonen berak lagunduko digu uste hau sendotzen. Bere *Essai...*n (1891-8: 811-812) aipamen hau aurkituko dugu: «**58.b** (le n° **58.b** devenant **58.c**) - AMA VIRGINAREN iragaitça, etc. Bayonne, P. FAUVET (vers 1760)». 16 lerro geroago «Par sa disposition typographique, son format, les caractères employés, ce volume rappelle tout à fait la dernière édition des Noël's d'Etcheberri (n° **15.i**, p. 72)». Berak argitzen digu, bada, «P. FAUVET (vers 1760)».

## 5. Bibliografia

### 5.1. Lehen mailako iturriak

ETCHEBERRI, J., 1627, *Manual devotioezcoa*, Bordelen, Gvillen Millanges Erregueren Imprimatçaillearenean, M.DC. XXVII.

———, 1645, *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Bordelen, Gvillen Milanges Erregueren Imprimatçaillea baithan.

———, 1665, *Eliçara erabiltceco liburua*, Bordelen, I. Mongiron Milanges Erregueren Imprimatçaillea baithan.

———, 1666, *Eliçara erabiltceco liburua*, Bigarren aldiaren Inprimatua, Paven, Ioannes Desbaratz Erregueren Imprimatçaillea Baithan.

———, 1669, *Manual devotioezcoa*, Bordelen, I. Mongiron Millanges Erregueren Imprimatçaillearenean, M.DC. LXIX.

---

<sup>44</sup> 1760.ekoa *Gure Herriaren* arabera (1925: 708-710).

- , 1697a, *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Baionan, Maffre baitan, bors Cantognetan.
- , 1697b, *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Baionan, Maffre baitan, bors Cantognetan.
- , 1699a, *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Baionan, Maffre baitan, bors Cantognetan.
- , 1699b, *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Baionan, Maffre baitan, bors Cantognetan.
- , *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Bayonan, P. Fauveten Imprimerian, Carmesetaco aldean.
- , *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, J. Fauvet, Imprimatcaillea baithan, bortz-Cantoiñetan.
- , *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Bayonan, P. Fauvet Imprimatcaillea baithan, Carmefen aldean.
- , *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Bayonan, P. Fauvet Imprimatcaillea baithan, Carmefen aldean.

#### NOELAC-en parteak:

- Euskal Herria*, 1886, "Inozentzen amen dolorearen gañean noela", XIV, 12. or.
- Gure Herria*, 1925b, "Artzainak Bethleemen", V, 708-710. or.
- Gure Herria*, 1926b, "Noelac", VI, 46-48. or.
- Gure Herria*, 1926a, "Trufaniaco Erregeak", VI, 32-40. or.
- Gure Herria*, 1926c, "Andrerena Mariaren elizan sartzearen ganean", VI, 125-128. or.
- Egan*, 1955, "Eguberri-koplak", (núms. 5-6), 16. or.
- Gure Herria*, 1929b, "Joanes Etcheberri", 232. or.

#### 5.2. Ikerketak

- AKESOLO, L., 1970, *Noelac eta berce canta espiritual berriac*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones, S. Sebastián.

- ALTUNA, P., 1981, *Ioannes Etcheberri Ziburukoak, Manval Devotionezcoa, Edizio kritikoa*, Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia y Ediciones Mensajero, Bilbao.
- ATUTXA, I., *Ioannes Etcheberri Ziburukoak: Obraren berrirakurketa bibliografia eta testukritika*. Doktore tesia. Prestatzen.
- BLECUA, A., 1988: *Manual de crítica textual*, Editorial Castalia.
- BONAPARTE, L. L., 1989, *Eskuizkribuak-Argitarapenak, Katalogoak 1*, Euskaltzaindia, Azkue Biblioteka.
- COLLINS, V., 1894, *Attempt at a Catalogue of The Library of the late Prince Louis-Lucien Bonaparte by Victor Collins*. Henry Sotheran & Co.
- DESGRAVES, L., 1971, *Les livres imprimés à Bordeaux au XVII<sup>e</sup> siècle*, Centre de Recherches d'Histoire et de Philologie, Genève, Librairie Droz, 11, rue Massot.
- , 1972, "Les livres imprimés à Bayonne au XVII<sup>e</sup> siècle", *Bulletin de la Société Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*. 379-382. or.
- , 1975, "Les livres imprimés à Bayonne au XVIII<sup>e</sup> siècle", *Bulletin de la Société Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*. 161-178. or.
- ETXENAGUSIA, K., 1981, *Iparraldeko Euskal Idazleak*, Labairu Ikastegia, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA, 1992, *Orotariko Euskal Hiztegia*, VII Ere-Fa, Ediciones Mensajero, S. A. Editorial Desclée DE Brouwer, S. A., Bilbao.
- GOMEZ, R. & LAKARRA, J. A. (arg.), 1992, *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*, ASJUren Gehigarriak 15, Donostia.
- HARISTOY, P., 1895, *St Jean de Luz et Ciboure. Souvenirs hystoriques et révolutionnaires avec quelque pages sur le Pays Basque*, Par m. Nicolai avocat a la cour d'appel de Bordeaux, Pau, Imprimerie Vignancour. S. Dufau, Imprimeur.
- HORDAGO PUBLIKAPENAK, 1978., *Manual devotionezcoa edo ezperen oren oro escuetan errabiltçeco liburutchoa*. Etcheberri Joannes, Editorial Lur, Donostia.
- KEREJETA, M. J., 1988: «Oihenart S. Pouvreauren hiztegian», in Lakarra (arg.) 1988a, 35-73 or.
- LABADIE, E., 1913, *L'imprimerie bordelaise et les livres basques*, Pau, G. Lescher-Moutoué, imprimeur, 11 rue de la Préfecture.

- LAFITTE, P., 1931, *Euskaldunen Lorategia, XVIgarren mendetik hunetako liburuetarik bildua*. Lehen zatia (1645-1800), Baionan, Lasserre Liburutegian salgei, 20. Gambetta karrikan.
- , 1967, "L'art poétique basque (Un inédit d'Arnaud d'Oyhénart)", *Gure Herria*.
- LAKARRA J. A.: 1988a (arg.): *Hiztegiak eta testuak*, EHU-aren Argitalpen Zerbitzua. Bilbo.
- , 1988b: «Testukritikaz: I. Stemmarantz», in Lakarra (arg.), 1988a. 103-139 or.
- LARRAMENDI, M., 1853, *Diccionario Trilingüe Castellano, Bascuence y Latín*, Nueva Edición publicada por don Pío de Zuazua, San Sebastián.
- , 1984, *El imposible vencido. ARTE de la lengua Bascongada*, Editorial Amigos del libro.
- LEIZARRAGA, I., 1990, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, Kalendrerak, ABC*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- LHANDE, P.: 1926, *Dictionnaire Basque-Français*, Paris, Gabriel Beauchesne Editeur.
- MICHEL, F., 1847, *Proverbes basques d'Oihenart*
- ONAINDIA, S., 1954, *Milla euskal-olerki eder*, Karmeldar Idaztiak, Larrea-Amorebieta.
- PEILLEN, T., 1983, *Jusef Egiategi. Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia*. (1785). Euskaltzaindia. Bilbao.
- PIERQUIN DE GEMBLoux, C. Ch., 1858a, *Histoire Litteraire, philologique et bibliographique des patois*, Paris, Auguste Aubry, Libraire editeur (nouvelle édition).
- , 1858b, *Bibliographie basque. Hommage a son altesse Le Prince Louis-Lucien Bonaparte*.
- RONCAGLIA, A., 1974, *Principi e applicazioni di critica testuale*, Università Degli Studi di Roma, Facoltà di Lettere e Filosofia, Bulzoni Editore, Roma.
- SORARRAIN, G. de, 1984, *Catálogo de obras euskaras*, Caja de Ahorros Vizcaína, Colección bibliográfica, Serie Mayor, 3.
- URKIZU, P., 1988, «Pierre d'Urteren hiztegia», in Lakarra (arg.) 1988a, 77-99 or.<sup>45</sup>

---

<sup>45</sup> Artikulu berbera argitaratzen da lau urte geroago. Aipamena: "Pierre d'Urteren hiztegia", in Lakarra (arg.) 1992, 231-242. or.).

———, 1989, *Pierre d'Urteren hiztegia*. EUTG-Mundaiz, Donostia. 2 lib.

———, 1994, «Oihenarten Atsotitzak eta Poetika berrirakurriz». IKER 8. Euskaltzaindia. Bilbo. 295-328. or.

URQUIJO, J., 1909, "Las citas del Diccionario de Pouvreau", *RIEV*, III, 504-519. or.

———, 1910b, "Notes d'Oihenart pour le Vocabulaire de Pouvreau", *RIEV*, IV.

VINSON, J., 1891, *Essai de une bibliographie de la langue basque*, Paris, 1891, *Supplements et complements*, Paris, 1898, Colección Bibliográfica, Serie Mayor 1\* y 1\*\* (respectivamente), Caja Ahorros Vizcaína.

———, 1909, "Le Vocabulaire de Pouvreau", *RIEV*, IV.

———, 1910b, "Notes d'Oihenart pour le Vocabulaire de Pouvreau", *RIEV*, V.